



**Nubaris
Dimentsioa**

Nubaris Dimentsioa

Abentura zirraragarria

Egileak

Manuela Corrales Peral

Rosa María Corrales Peral

Rosa María Iglesias Iglesias

Marisol Justo de la Rosa

María Teresa Sánchez Cordero

IBAIZABAL

Haur Hezkuntza

Aurkibidea

- 4** Hezkuntza lehen haurtzaroan
- 6** Oinarrizko gaitasunak eta Haur Hezkuntza
- 13** Oinarri metodologikoak
- 16** Nubaris Dimentsioa lehen zikloan
- 17** Estimulazio goiztiarra
- 20** Masajeak: komunikazio afektiboa eta garapena
- 21** Jolasak lehen haurtzaroan
- 24** Tailerrak
- 26** Proiektukako lana
- 28** Hizkuntza zero urtetik hiru urtera bitartean
- 34** Matematika lehen zikloan
- 36** Haurren artea
- 38** Adimen bitak
- 40** Adimen emozionala
- 42** Ohituren garrantzia
- 46** Familiaren eta eskolaren arteko harremana
- 48** Psikomotrizitatea
- 50** Nubaris, magia betetako mundua. Proiektuaren aurkezpena
- 52** Ikaslearen materiala
- 55** Irakaslearen materiala
- 57** Ikasgelako materiala
- 62** 2 urteko haurtzaroko edukien sekuentzia

Hezkuntza lehen haurtzaroan

Giza eta gizarte zientzien alorreko ikerketek, gizarteak azken hamarkadetan izan duen bilakaerarekin batera, aldatu egin dute lehen haurtzaroa ulertzeko dugun modua.

Gaur egun, ez da zalantzan jartzen haur guztiak berdinak jaiotzen direla eta jakintza eta kultura eskuratzeko aukera berdinak izan behar dituztela, ez eta beren herrialdeko nahiz munduko herritar aske gisa hazi behar dutela ere. Haurren oinarrizko eskubide hori bermatzeko, beharrezkoa da hezkuntza eraginen sistema bat eskaintzea, aukera ematen duena haurren ahalmen fisiko, afektibo, sozial eta intelektual guztien garapena eta adierazpena sustatzeko, jaiotzen diren unetik bertatik.

Nazioarteko erakundeen hainbat txostenek, hala nola NBE, UNESCO eta UNICEF erakundeenek, eta mundu osoko aditu batzordeen ondorioek azpimarratzen dute hezkuntzak berebiziko garrantzia duela jaiotzaren unetik bertatik. Txosten eta ondorio horien artetik, honako hauek dira aipagarrienak: alde batetik, Jomtien-en (Thailandia) egindako *Hezkuntza guztiontzat* mundu konferentziako azken deklarazioa:

Ikaskuntza jaiotzaren unean bertan hasten da. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela haurrak txiki-txikitatik zaintzea eta hezte. Familiari, komunitateari edo instituzioei bideratutako neurriak erabil daitezke horretarako, kasu bakoitzerako egokiena dena aukeratuta.

Bestetik, aipagarria da xxi. Menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako *Hezkuntza, altxor ezkutua* txostena ere. Honako hau dio txostenak lehen haurtzaroari buruz:

Ikastetxeek eta programek sozializazio prozesua martxan jartzen laguntzen dutela egiaztatzeaz gain, ikusi ahal izan da lehen haurtzarorako berariazko hezkuntza jasotzen duten haurrak hezkuntza hori jasotzen ez dutenak baino prestatuago daudela eskolarako eta aukera gutxiago dituztela ikasketak goiz uzteko.

Ikuspegi hori abiapuntutzat hartuta, bermatu behar dugu haur guztiek dutela, jaiotzen diren unetik, **benetako kalitatezko hezkuntza** jasotzeko eskubidea. Horretarako, beharrezkoa da eskoletan haur bakoitzaren ahalmenen **garapen integrala errespetatzea, babestea, bultzatzea eta sustatzea**. Eskoletan, haurrak dira beren garapenaren protagonista nagusiak; izan ere, helduen laguntzaz, ibilbide bat sortzen dute inguruan duten mundua ezagutzeko eta harekin harremanak izateko.

Haurren garapeneko hezkuntza bizipenak osatzeko eta zabaltzeko, **familiarekin batera heldu behar zaio heziketa lanari**. Irakasleari eta haren taldeari dagozkien zereginetako bat da zehaztea zer bidetatik eta zer modutan hartuko duen parte familiak bere semearen edo alabaren garapen osoa sustatzeko proiektuan.

Haur Hezkuntzako profesionalek irakasle lanaren funtsa eta modua aldatzeko erronkari aurre egin behar diote, kontuan hartuz Delors Batzordeak UNESCOrako egindako txostenaren funtsezko lau oinarriak:

«Ezagutzen ikastea, egiten ikastea, izaten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea». Nubaris Dimentsiotik, funtsezko beste oinarri bat gehitzea proposatzen dugu: «egin nahi izatea».

Hezitzaile horiek aitortzen dute haur bakoitza bakarra dela, gainerakoengandik desberdina, eta badakite beren irakasle lanaren helburua dela **haur bakoitzak norbera izaten ikastea eta inguratzen duen mundua ulertzea.**

Oinarrizko gaitasunak eta Haur Hezkuntza

Gizarte osoaren ardura da haurrek bizitzako lehen urteetan duten ahalmen izugarria garatzearen alde egitea. Horregatik, gizarteak honako erantzukizun hau eman dio Haur Hezkuntzari: haurren ahalmenak eta gaitasunak garatzea, etorkizuneko gizarteak jar diezazkiekeen erronkei aurre egiteko.

Hori lortzeko, ikaskuntza eta sozializazio prozesu egoiak sustatzeko antolatuta egon behar du eskolak. Bizipenen eta harremanen gune pribilegiatu horretan, haurrak kulturaren berri izaten hasten dira, ezaguerak bereganatuz. Gainera, prozedurak, trebetasunak, jarrerak eta balio demokratikoak garatzen dituzte, eta oso baliagarriak zaizkie pixkanaka-pixkanaka ingurune hurbila ezagutzeko, pentsatzeko eta mundua interpretatzeko eta adierazteko, eta beren burua ezagutzeko eta pentsatzen dutena adierazteko. Hartara, aukera dute izaten ikasteko, ezagutzen ikasteko, jakiten ikasteko, egin nahi izateko eta elkarrekin bizitzen ikasteko, eta horiek dira, hain zuzen, hezkuntzaren funtsezko oinarriak.

Hezkuntzaren Lege Organikoak oinarrizko gaitasunak gehitzen ditu curriculumean, eta erreferentziatzat hartzen ditu derrigorrezko hezkuntza ebaluatzeko. Oinarrizko gaitasunak erreferentzia bat dira, halaber, jakiteko nola antolatuko diren eta nola funtzionatuko duten Haur Hezkuntzako eskolek, irakaskuntza jarduerak, hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanek, jarduera osagarriak eta curriculumetik kanpoko jarduerak, eta jakiteko nola koordinatuko diren Haur Hezkuntzako lehen zikloa eta bigarren zikloa, eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Hezkuntzan, **gaitasunak ahalmen multzoak dira, eta barnean hartzen dituzte pertsonak ikasteko prozesuaren bidez eskuratzen dituzten ezaguerak, abileziak, trebetasunak eta jarrerak, beren zeregin pertsonaletan eta eskolako eta gizarteko zereginetan erabiltzen dituztenak**, hau da, eguneroko bizitzako egoeretan erabiltzen dituztenak. Ez dago gaitasunak guztiz barneratzeko une edo etapa jakinik; izan ere, haurra gaitasunak zabalduz, garatuz eta aberastuz joaten da, bizitza osoan zehar zenbait alorretan bizitzen dituen esperientzien bidez, izaten dituen erronken bidez eta gainditzen dituen arazoaren bidez.

Gaitasunak ez dira independenteak. Aitzitik, elkarrekin lotuta daude; izan ere, gaitasunen alderdi asko elkarren osagarriak dira, elkarrekin lotuta daude edo ikuspegi osagarriak lantzen dituzte. Eguneroko bizitzan, gaitasun bat garatzeko eta erabiltzeko, beharrezkoa da gainerako gaitasunak ere erabiltzea. Gaitasunen arteko lotura argi ikus daiteke haien guztien zati diren alderdi batzuetan; adibidez: arazoaren irtenbideen bilaketan; jarrera kritikoa; emozioen kudeaketan; sormenezko ekimenetan; eta, arriskua ebaluatu ondoren, hartu beharreko erabakietan.

Hori dela eta, gaitasunetan oinarritutako ikusmoldeak aukera ematen du berrikuntza didaktikoak proposatzeko, eta haien bidez globalizazio printzipioa garatzeko, bai eta askotariko adimenak sustatzeko ere. Datorren hamarkadan, nazioarteko curriculum berri bat osatuko dute askotariko adimenek, eta curriculum horrek hezkuntzako etapa guztietarako erreferentzia ardatz komunak emango dizkigu.

Horrenbestez, oinarritzotzat jotzen diren zortzi gaitasunen bitartez, garapena modu bateratuan eta orekatuan gertatzeko beharrezkoak diren orientabideak proposatzea hartzen du helburutzat gaitasunetan oinarritutako ikusmolde honek.



*Autonomia pedagogikoa*ri esker, beste gaitasun batzuk ere lan daitezke gure hezkuntza proiektuetan (eta beraz, proposamen pedagogikoetan ere bai), hala nola gaitasun emozionala. Gaitasun hori integratzailea da, eta behar-beharrezkoa, Haur Hezkuntzako lehen zikloko helburuak lortzeko.

Gaitasunak Nubaris Dimentsioan

Gure proiektuak kontuan hartzen ditu haurren askotariko adimenak, eta programazioko elementuetako bakoitzarekin lotzen ditu gaitasunak. Gurea berrikuntza proposamen bat denez, unitate didaktikoek estilo guztiz berria izango dute eta, horretan, honako bi helburu hauek hartuko ditugu jomugatzat: batetik, oinarrizko gaitasunak sustatzea, eta bestetik, unitate didaktiko bakoitza gure testuinguruko egiazko premiekin eta aukerekin lotzea. Gaitasunak honela zehaztuko dira:

- Unitate didaktiko bakoitzaren muinean bertan. Ikasturtean zehar gaitasun guztiak landuko dira unitateetako ardatz globalizatzaileen bitartez. Esate baterako: kalea eta parkea (gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; matematikarako gaitasuna), natura ingurunea: animaliak eta landareak (zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna; gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna)...
- Unitate didaktikoko helburuetan eta edukietan. Unitate bakoitza gaitasun jakin batzuekin lotuta dago; baina, edonola ere, beste zenbait gaitasun ere lan daitezke, helburuen eta edukien bitartez.
- Baliabide pertsonaletan eta metodologikoetan. Proposamen orokorreari eta senean, parte hartzean, harremanetan eta esperimentazioan oinarritutako teknikei esker, gaitasunetan oinarritutako ikusmoldeak bat egiten du gure-gureak diren jarduerekin: biribilekoak, esperimentazioa, bilaketak, kontakizunak, deskribapenak, elkarriketak...
- Baliabide materialen aukeraketan. Egiazko materialak (argazkiak, liburuxkak, aldizkariak, kaxak, liburuak...) erabiltzen ditugu, haurrek ahalmenak beren kabuz aplikatu ditzaten pixkanaka-pixkanaka, ohikoak zaizkien inguruneetan (eskola, etxea, parkea), material ezagunak baitira haien zatitzat. Horrez gain, kontzeptuekin, prozedurekin eta jarrerekin lotutako edukiak lantzen dituzten baliabideak erabiltzen ditugu, zenbait gaitasun sustatzeko; batez ere, ikasten ikastekoa.
- Haur Hezkuntzako arloetako jarduerak eta gaitasun guztiak zehaztean, honako hauek uztartu dira: hitzezko adierazpena (deskribapenak, galderak, izenburuak), matematika adierazpena (tamainak, formak, koloreak...), gorputz adierazpena (imitazioak, antzezpenak, emozioak), musika adierazpena (soinuak, abestiak, interpretazioak) eta arte adierazpena (modelatuak, pintura, estanzazioa...).
- Gaitasunetan oinarritutako ikusmoldearen arabera zereginen adierazleak erabiltzeki esker, ikasleek gaitasunen aplikazio praktikoan egiten dituzten aurrerapen etengabeak ebaluatuko dira, bai eta une jakin batzuetan erdietsi dituzten lorpen mailak ere.

Zereginen adierazleak

<p>Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, zenbait trebetasun garatzen dira, pentsamenduak, sentimenduak eta ikaslearentzat gertukoak diren gertaerak hainbat testuingurutan ulertzeko, adierazteko eta interpretatzeko. Halaber, tresnak eskuratzen dira norberaren portaera eta besteekiko harremanak erregulatzeko. Gaitasun horrek hizkuntzarekin lotutako lau trebetasunei egiten die erreferentzia: entzumenari, mintzamenari, irakurmenari eta idazmenari.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea ulertzen dituen helduen eta beste haurren komunikazio asmoak eta ahozko mezuak, eta ea ematen dien erantzun egokia. 2. Ea erabiltzen duen ahozko hizkuntza harremanak izateko eta ikasteko tresna gisa, bere errealitatearen bizipenak, sentimenduak, ideiak eta emozioak adierazteko. 3. Ea kontuan hartzen duen ahozko hizkuntza, harremanak izateko eta norberaren eta gainerakoien portaera arautzeko. 4. Ea hitzez adierazten duen zer ari den ikasten, zer sentitzen duen eta zer pentsatzen duen, eta ea erabiltzen duen ahozko hizkuntza harremanak izateko eta bizikidetzara arautzeko. 5. Ea parte hartzen duen zenbait komunikazio egoeratan, ea errespetatzen dituen ahozko hizkuntzaren gero eta erabilera eta forma konbentzionalagoak eta konplexuagoak eta ea ahalegintzen den komunikazio harremana arautzen duten arauak betetzen. 6. Ea erabiltzen dituen hizkuntza trebetasunak —entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena— testuinguru funtzional eta adierazgarri baten barruan. 7. Ea aztertzen dituen gizartean erabiltzen diren testuak zenbait euskarritan, bai eta irakur daitekeen edo irakurri behar den oro ere. 8. Ea jarduten duen testu idatziekin, eta ea interesatzen zaizkion helduek testu horietaz dituzten ezaguerak eta eguneroko bizitzako egoeretan testu horietaz egiten dituzten interpretazioak. 9. Ea erabiltzen dituen arkatzak eta paperak, helduen idazkera imitatzeko, markak, zirriborroak eta trazuak nahieran eginez.
<p>Matematikarako gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, zenbait trebetasun garatzen dira, arrazoibideak eta ezagutza matematikoak gero eta zehaztasun handiagoz aplikatzeko, errealitatea deskribatu eta eguneroko bizitzako arazoak konpondu behar direnerako. Gaitasun horrek zenbakiekin, oinarrizko eragiketaz egiten hastearekin, formekin, denborarekin eta espazioan adieraztearekin lotutako alderdiak lantzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea aztertzen eta ikertzen dituen ingurune fisikoko objektuen, materialen eta elementuen ezaugarriak eta propietateak, saiakuntzak eginez tamainarekin, formarekin, kolorearekin, pisuarekin, testurarekin, gogortasunarekin, plastikotasunarekin, iragazkortasunarekin, tenperaturarekin, funtzionamenduarekin, eta abarrekin, eta ikusiz zer portaera fisiko duten, nola funtzionatzen duten eta zer ondorio dituzten haien gainean egindako ekintzek, bai eta ondorio horietako batzuk aurreikusiz ere. 2. Ea begiratzen dien elementuen, materialen, objektuen eta bildumen oinarrizko koloreei; eta ea bereizten dituen. 3. Ea esperimendatzen duen tamainekin eta bereizten dituen tamainak; eta ea objektuak tamainaren arabera taldekatzen dituen. 4. Ea aztertzen dituen objektuen formak eguneroko egoeretan, eta ea egiten dituen taldekatze errazak, formari erreparatuta. 5. Ea egiten dituen zenbait lotura elementuen eta multzoen artean (taldekatu, sailkatu eta ordenatu), haien arteko antzekotasunetan eta desberdintasunetan oinarrituta. 6. Ea espazioan orientatzen den eta identifikatzen dituen espazioan kokatutako elementuak, eta ea identifikatzen eta erabiltzen dituen oinarrizko espazio kontzeptuak. 7. Ea duen eguneroko esperientziekin lotutako denbora nozio arrunt batzuen berri. 8. Ea esperimendatzen duen kantitate nozioarekin; ea ikusten dituen taldekatzeak, konparazioak, antzekotasunak eta desberdintasunak; ea erabiltzen dituen zenbakizkoak ez diren oinarrizko zenbatzaileak; eta ea erabiltzen dituen bere esperientziarekin lotutako zenbaki kardinal batzuk.

<p>Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, mundu fisikoa bere baitan eta jendearekiko elkarreraginetan ulertzeko trebetasunak garatzen dira, bai eta nork bere burua eta ingurunea ezagutzeko, babesteko eta hobetzeko konpromisozko jarrera hartzeko trebetasunak ere. Gaitasun horrek pertsonetikiko elkarreraginarekin, objektuak manipulatzearekin, eta espazioa eta denbora zientifikoki esploratzearekin lotutako alderdiak lantzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea jabetzen hasten den natura ingurunearen garrantziaz, eta ea interesa duen paisaia naturalekiko eta haien edertasunaz jabetzen den pixkanaka-pixkanaka. 2. Ea identifikatzen dituen fenomeno atmosferikoak, astroak eta naturako elementuak, eta ea badakien zer aldaketa gertatzen diren ingurunean urte sasoi bakoitzean (udazkena, negua, udaberria, uda), zer eragin duten pertsonen bizitzetan eta nola aldatzen duten natura ingurunea. 3. Ea duen natura inguruneko izaki bizidunen eta bizigabeen berri, haien arteko harremanak aztertzen dituen eta haiek zaintzeko eta errespetatzeko jarrerak adierazten dituen, etxeko animaliak eta landareak zaintzeko jardueretan parte hartuz. 4. Ea garatzen duen natura ingurune hurbileko animaliekiko eta landareekiko interesa, haien ezaugarri esanguratsuenak identifikatzen dituen eta pixkanaka-pixkanaka gizakion bizitzan duten garrantziaz jabetzen den. 5. Ea hasten den natura ingurunea errespetatzen eta zaintzen, ea egiten dituen lotura afektiboak izaki bizidunekin eta ea sentsibilizatzen den natura zaintzearekin eta babestearekin. 6. Ea garatzen dituen kontzientzia eta erantzukizuna, ingurumena zaintzeko eta hobetzeko jardueretan parte hartuz: birziklatzeko eta kontsumo arduratsurako jarraibideak, energia aurrezteko jokabide egokiak, ura zentzuz erabiltzea... 7. Ea jarduten duen beste haurrekin batera etxeko, ikastetxeko eta naturako mantentze lanetan: txukuntzen, garbitzen, zaborra bereizten, animaliak eta landareak zaintzen... 8. Ea ezagutzen dituen eta behar bezala erabiltzen dituen bere inguruan (ikasgelan, ikastetxean, kalean, parkean...) ohikoak diren objektuak eta elementuak.
<p>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, ikus-entzunezko eta informatikako tresnak autonomiaz eta jarrera kritikoz erabiltzeko trebetasunak garatzen dira, dela informazioa biltzeko, prozesatzeko eta eraldatzeko, dela komunikatzeko. Gaitasun horrek IKTen aukerak eta mugak jakitearekin lotutako alderdiak aztertzen ditu. Horrez gain, informatika sistemen berri izaten hasiko dira ikasleak.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea identifikatzen dituen ingurune hurbileko tresna teknologikoak (irratia, argazki kamera, ordenagailua, telefono mugikorra, arbel digitala, tableta...). 2. Ea bereizten dituen gero eta modu argiagoan errealitatea eta errealitatearen ikus-entzunezko adierazpena. 3. Ea identifikatzen dituen bere irudia eta ezagutzen dituen pertsonena ikus-entzunezko adierazpenetan; ea identifikatzen eta deskribatzen dituen zenbait formatutan eta zenbait tresnarekin (mugikorra, argazki kamera, bideokamera) grabatutako ikasgelako eguneroko bizitzako egoerak. 4. Ea erabiltzen dituen gero eta modu autonomoagoan baliabide teknologiko batzuk, haiek errespetatuz eta zainduz. 5. Ea gozatzen duen artelanak eta kontzertuak ikusten eta entzuten (opera, zarzuela, dantza, balleta...). 6. Ea identifikatzen duen informazioaren eta komunikazioaren baliabideek zenbait lekutan duten presentzia (etxean, ikasgelan, eskolan, aisialdirako guneetan).

<p>Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, zenbait trebetasun garatzen dira, bizikidetzarako, printzipio etikoak eta demokratikoak ulertzeko eta balioesteko, gizarte ulertzeko, eta herritartasun globaleko sentimendua eta balio unibertsalekiko errespetua izateko. Gaitasun horrek printzipio etikoak eta bizikidetzarako oinarritzko arauak balioestearekin lotutako alderdiak lantzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea baduen eskolako giroaren, pertsonen, arauen eta funtzionamenduen berri; ea bakarrik orientatzen den ikastetxeko geletan zehar; eta ea badakien zer erabilera eta funtzionamendu dituen leku bakoitzak eta zer jarduera egiten diren bakoitzean. 2. Ea ohartzen den pixkanaka-pixkanaka helduekin eta beste hurrekin egiten dituen harremanez, bai eta helduek gainerako hurrekin egiten dituztenez ere. 3. Ea hasi den besteen beharrez, interesez eta ikuspuntuez jabetzen. 4. Ea ezagutzen dituen bizitza antolatzeke modu batzuk, eta ea parte hartzen duen gizarte talde bateko (familia, ikasgela, eskola, jolas taldea...) kide sentitzea eragiten duten eguneroko esperientzietan. 5. Ea identifikatzen dituen familiako kideak (familia nuklearraz harago), ea badakizkien eta erabiltzen dituen haien izenak eta ahaidetasun harremanak, eta ea harreman afektibo orekatuak eta egokiak sortzen dituen haiekin. 6. Ea badakien zein diren etxeko gelak (elementuak, altzariak, etxeko gauzak eta beste objektu batzuk), eta ea lotzen dituen haietako bakoitzean egiten diren jarduerekin. 7. Ea pixkanaka-pixkanaka ezagutzen, onartzen eta erabiltzen dituen gizarte portaerako oinarritzko jarraibide batzuk; ea txertatzen dituen gizarte konbentzio batzuk (ahozkoak eta keinuzkoak) bere portaeran; eta ea ezagutzen eta errespetatzen dituen oinarritzko arauak, eta parte hartzen duen haietako batzuk ezartzen. 8. Ea identifikatzen dituen gizarte eta kultura ingurunea osatzen duten elementu fisiko batzuk eta giza elementu batzuk, eta ea bereizten dituen pixkanaka-pixkanaka komunitateko zerbitzu batzuk.
<p>Giza eta arte kulturarako gaitasuna</p>	<p>Gaitasun horren bidez, zenbait trebetasun garatzen dira, norberaren eta besteen ideiak berradierazteko, arte sorkuntzaren mekanismoak jakiteko eta ulertzeko, bai eta kultura eta arte adierazpenak ulertzeko, balioesteko eta haietan parte hartzeko ere. Gaitasun horrek artea eta kultura ulertzearekin, norberaren arte adierazpenarekin eta kulturak berez dakarren sormena balioestearekin lotutako alderdiak hartzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea adierazten eta komunikatzen dituen bizipenak, gertaerak, emozioak eta sentimenduak, zenbait material plastiko eskuekin erabiliz eta eraldatuz. 2. Ea sormena garatzen duen, prozesuak errespetatuz eta bere lan plastikoak balioetsiz segurtasun afektiboko giro batean, eta ea adierazten duen besteen lanekiko interesa eta errespetua. 3. Ea erakusten duen bere gizarte testuinguruaren esparru kulturala osatzen duten lan linguistikoak, musikalak, plastikoak, eta abar ezagutzeko interesa eta jakin-mina. 4. Ea modu aktiboan parte hartzen duen bere ingurune hurbileko jaietan, egun berezietan eta kultura ospakizun eta adierazpen garrantzitsuetan. 5. Ea aztertzen, probatzen eta ezagutzen dituen ahotsak, gorputzak eta musika tresnek soinua egiteko eta gauzak adierazteko ematen dituzten aukerak, musika sortzeko eta interpretatzeko segurtasun afektiboko giro batean. 6. Ea gozatzen duen dantzarekin, soinuak bereizteko jolasekin, musika tresnen bidez soinuak egitearekin eta entzunaldiekin. 7. Ea erabiltzen dituen bere gorputzaren adierazpen aukerak, nahiak, asmoak, beharrak, gogo aldarteak, emozioak eta bizipenak adierazteko, inguruko pertsonekin duen lotura afektiboa adierazteko, errealitateaz jabetzeko, munduaz duen ezaguera adierazteko eta jolas sinbolikoen bidez pertsonaiak, gertaerak eta egoerak adierazteko.

Ikasten ikasteko gaitasuna	<p>Gaitasun horren bidez, norberaren ikaskuntza planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko trebetasunak garatzen dira, motibazioa sustatuz eta tresna egokiak erabiliz. Gaitasun horrek norberaren trebetasun kognitiboekin eta portaerazkoekin zein besteengandik eta besteekin batera ikastearekin lotutako alderdiak lantzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea konfiantza duen bere baliabideetan eta ahalmenetan; eta ea sentitzen dituen autoestimua, bere buruarekiko konfiantza, segurtasuna eta afektua, zenbait jarduera egitean. 2. Ea jabetzen den bere mugez eta gabeziez pixkanaka-pixkanaka, eta ea erakusten duen laguntzarekin haiek gainditzeko motibazioa duela eta ahalegintzen dela. 3. Ea erabiltzen dituen jolasteko, ikasteko eta harremanak izateko egoera berrietara egokitzeko mekanismoak, konfiantzaz eta ekimenez jardunez haietan, planifikatu eta hausnartu ondoren. 4. Ea itxaropen egokiak dituen hasten dituen lanak ongi egiteko, eta ea ahalegintzen den haiek egiten, gainditzen dituen frustrazio txikiak eta pozik eta harro sentitzen den ongi egiten dituenean. 5. Ea erabiltzen dituen arretaren, behaketaren, kontzentrazioaren, ulermenaren eta pentsamenduaren oinarriko beste trebetasun batzuk, edozein ikaskuntza egoeratan. 6. Ea pixkanaka-pixkanaka areagotzen duen bere buruarengan duen konfiantza, bai eta ikaskuntza erronkei aurre egiteko eta trebetasun berriak bereganatzeko ekimena ere. 7. Ea badituen ikasteko portaera egokiak izatera bultzatzen duten barne estimuluak.
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	<p>Gaitasun horren bidez, trebetasun pertsonalak garatzen dira (erabakiak hartu eta martxan jartzeak, arriskuak hartzekoak eta erantzukizunak onartzekoak), bai eta gizarte trebetasunak ere (harremanetarakoak eta taldean lan egitekoak). Gaitasun horrek bere baitan hartzen ditu norberaren eta besteen ezaguerarekin lotutako alderdiak, bai eta norberaren irizpidearen arabera hautatzeko ahalmenarekin lotutako alderdiak ere.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea hartzen dituen autonomia sustatzen duten ohitura osasungarriak zenbait alorretan, hala nola elikaduran, atsedenean, janzkeran, gorputz higienean, ingurunearen txukuntasunean eta zaintzan, norberaren ongizatean eta osasunean, eta ea onartzen dituen ohitura horiek arautzen dituzten portaera arauak eta lorpenekin pozik agertzen den. 2. Ea sentitzen duen segurtasuna, afektua eta gaitasuna zenbait jarduera egitean, eta ea arautzen duen pixkanaka-pixkanaka bere portaera. 3. Ea hartzen dituen besteak errespetatzeko ohiturak, eta ea prest agertzen den besteei laguntzeko, lankidetzan aritzeko, enpatiaz jokatzeko, elkartzasuna adierazteko... 4. Ea barneratzen dituen eguneroko egoeretan eta jardueretan gizarte harremanak izateko oinarriko jarraibideak, arau batzuk onartuz eta bere ohiko portaeran txertatuz. 5. Ea irtenbidea aurkitzen dien eguneroko bizitzako arazo eta gatazka txikiei. 6. Ea hartzen dituen ohitura osasungarriak, bai eta kontuz ibiltzeko eta bere burua zaintzeko jarrerak ere. 7. Ea laguntza eskatzen eta onartzen duen, bere burua zaindu behar duenean, gaixo dagoenean, lesioen bat duenean edo oro har osasunarekin lotuta dagoen edozein gaitan.
Gaitasun emozionala	<p>Gaitasun horren bidez, norberaren emozioak eta sentimenduak ezagutzeko eta kontrolatzeko trebetasunak garatzen dira, bai eta emozio eta sentimendu horiek besteengan identifikatzeko trebetasunak ere, hartara besteekin harreman positiboak edukitzeko eta pertsona zorientzua izateko. Gaitasun horrek autoestimua garatzearekin eta autokontzeptuaren eraketarekin lotutako alderdiak lantzen ditu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ea identifikatzen dituen bere oinarriko emozioak, eta haiek hitzez adierazten hasten den; eta ea identifikatzen dituen besteen oinarriko emozioak, eta haiek hitzez adierazten saiatzen den. 2. Ea lortzen duen bere eboluzio unerako egokia den segurtasun afektibo eta emozionala: ea hobeto onartzen dituen frustrazio txikiak, laguntza eskatzen duen, ezezagunekiko beldurra gutxitzen duen eta pertsona batzuegandik aldenteak sortutako antsietatea kontrolatzen duen. 3. Ea sortzen dituen lotura afektibo egokiak helduekin eta beste haurrekin, bere eguneroko testuinguruetan. 4. Ea adierazten dituen beharrak, sentimenduak eta emozioak keinu bidez eta hitzez, haiek kontrolatzen hasteko. 5. Ea irudi ona duen bere buruaz; eta ea bere nortasuna ezagutzen, onartzen eta garatzen duen. 6. Ea eroso sentitzen den ikaskuntza berriarekin, egoera berriarekin, ideia berriekin edota jarduera berriekin. 7. Ea gozatzen duen bere sorkuntzekin, erdiespenekin eta lorpenekin.

Oinarri metodologikoak

Haur Hezkuntzan, honako helburu hauxe da nagusi: haurren garapen fisikoaren, afektiboaren, sozialaren eta intelektualaren alde jardutea eta, horretan, familiekin lankidetzan aritzea, oinarritzat jotzen diren gaitasunak lortzeko beharrezkoak diren oinarriak ezartzeko. Helburu hori lortzera iritsiko bagara, ezinbestekoa da, gurea haurrei zuzendutako proiektua denez gero, ondo jakitea haurrek unean-unean zer-nolako garapen maila duten; eta hori abiapuntutzat hartuta, beharrezkoa da, halaber, koherentziaz jokatzeko, eta lortu nahi ditugunak bat etortzea programatutako edukiekin eta jarduerekin.

Alde horretatik, **Nubaris Dimentsioan** biltzen diren jarduera proposamen guzti-guztiak oinarritzen dira haurren garapenari buruz egindako deskribapenetan (eta horri dagokionez, Vigotskyren eta haren jarraitzaileen teoria historiko-kulturaleri jarraitu diegu). Honela definitu litezke:

- Haurren garapena **gorabeheratsua** da.
- Haurren garapenean, hezkuntza da **bide erakusle** nagusia.
- Garapen psikikoa **jardueren** bitartez gauzatzen da.
- Lehen haurtzaroan, honako hiru jarduera hauek dira nagusi: **haurren eta helduen arteko komunikazio emozionala, objektuak** erabiliz egiten diren **jarduerak** eta **jolasak**.
- **Haurren garapen potentzialak** berebiziko garrantzia du irakasteko eta ikasteko prozesuan.

Funts teoriko horiek dira, hain zuzen, gure hezkuntza proposamenaren oinarri kontzeptualak. Gure proposamenean, haurra bera da prozesuko ardatz eta oinarri nagusia, eta irakasleek ere berebiziko garrantzia dute, haiek arituko baitira gero orientatzaile eta bitartekari lanetan.

Nubaris Dimentsioa proiektuan, honako xede hau lehenesten dugu: haurrei zenbait lanabes ematea, beren **ezaguerak hainbat testuingurutan erabili**, eta bizikidetzan oinarritzat hartuta zenbait helburu pertsonal lor ditzaten. Gure metodologiari jarraituz, eta **norberaren ezaguerak eraikitzea** helburutzat hartuta, hainbat trebetasun landuko dituzte haurrek ume-umetatik: behaketak egitekoa, ikertzekoa, problemak ebaztekoa, hipotesiak egitekoa, aurretiko ideiak egiaztatzekoa eta ondorioak ateratzekoa, besteak beste.

Laburbilduz, honako hauek dira **Nubaris Dimentsioaren lan proposamen azpimarragarrienak**:

- Haurrek **aurretiko zer ezaguera dituzten**, ikasi beharrekoak ere halakoxeak izango dira. Horrenbestez, beharrezkoa da haurrek eskolara joatean dituzten ezaguerak onartzea, eta, horrekin batera, ezinbestekoa da haien motibazioak, ikuspuntuak eta sentimenduak errespetatzea.
- Ikaskuntzaren **ardatza ikaslea bera da**. Horregatik, hain zuzen, beharrezkoa da haurrek, beren ezaguerak abiapuntutzat hartuta, esanahiak eraiki ditzaten saiatzea.
- **Ikaskuntzari zentzua aurkitu** behar zaio. Beharrezkoa da loturak ezartzea, egitura kognitiboak hautsi, eta, ikaskuntzarekin lotutako bizipen berriak izateari esker, haiek atzera ere berregitea eta/edo ordezkatzeko, hau da, beharrezkoa da ikaskuntza esanguratsua izatea.
- **Esanahiak aktiboki eraikitzea**, horixe da ikastea. Egin beharreko jardueri dagokienez, honako hauxe da garrantzitsua: jarduera horiek eta haurrak eginak dituen eraikuntzak behar bezala uztartzea. Horrenbestez, beharrezkoa da haurren unean uneko garapen maila kontuan hartzea eta errespetatzea eta, horretan, sekuentzia bat ezartzea, haurren eraikuntza prozesuarekin bat etorriko dena.

- **Testuingurua kontuan hartuta, zenbait kontzeptu, prozedura eta jarrera** landu behar dira **modu integralean**. Horri esker, ikasleek oinarritzko zenbait ezaguera bereganatuko dituzte, eta natura, gizartea eta kultura ulertuko. Nabarmena da haurren garapen eta ikasketeko prozesua integrala eta dinamikoa dela, eta barneko nahiz kanpoko faktoreen arteko interakzioan oinarritzen dela.
- Lan egitean, **ikusuntu orokor** bat hartu behar da oinarritzat. Ikaskuntza ez da lortzen ezaguerak batzearen edo metatzearen bitartez, baizik eta ikasi beharrekoak eta badakizkigun ezaguerak (bizipenen bitartez lortutako ezaguerak) elkarrekin lotzearen bitartez. Beraz, ikasketeko prozesu orokor bat da, eta ezagutu nahi den errealitatera hurbiltzeko aukera ematen die norbanakoei.
- Ikastearekin lotutako bizipenak osatzea eta zabaltzea helburutzat hartuta, **familiarekin batera heldu behar zaio heziketa lanari**. Gure programa eraginkorra izango bada, beharrezkoa da hezkuntza irizpide bereberei jarraitzea haurrek bizi dituzten testuinguru guztietan. Hori dela eta, guztiz ezinbestekoa da hezitzaileen eta gurasoen arteko komunikazioa eta koordinazioa.


Azalpen horiek guztiak abiapuntutzat hartuta, eta etapa bakoitzeko premiak eta edukiak gogoan ditugula, hona hemen **Nubaris Dimentsioaren xede nagusiak**:

- **Hizkuntza trebetasunak** sustatzea, ideiak eraikitzeko, sentimenduak eta emozioak adierazteko, eta norberaren jokabidea zein besteekiko harremanak arautzeko.
- **Pentsamendu logikoa** eraikitzeko beharrezkoak diren adimen trebetasunak lantzea, haurrek errealitatea uler eta interpreta dezaten, hipotesiak egin eta ondorioak atera ditzaten, eta eguneroko bizitzako problemak ebazten ikas dezaten.
- Ingurumena babesteko konpromisoa hartze aldera, hainbat egoera aurkeztea eta, horretan, **mundu fisikoa den horretantxe** eta gizakiok eragiten diogun neurrian nolakoa den ulertzea.
- Ulermena eta adierazpena oinarritzat dituzten testuinguruak bultzatzea eta, horretan, zenbait **komunikazio kode** erabiltzea: hitzezkoa, grafikoa, keinuak, plastika, musika, teknologia eta matematika kodeak, besteak beste.
- Norberaren inguruaren ezaguera abiapuntutzat hartuta, eta bizikidetza nagusi dela, errespetuzko trebetasunak ikastea eta sustatzea, **gizarte harreman egokiak** eraikitzeko.
- **Munduko kultura ondarearen** berri jakitea, eta gaur egungo zenbait kulturak zer ekarpen egiten dizkiguten aintzat hartzea.
- **Ikaskuntza** egoera **eraginkorrak eta autonomoak** bultzatzea, informazioa eraginkortasunez aztertzeko, erabiltzeko eta antolatzeko.
- Harreman aberasgarriak bultzatzea, konpromisoa oinarri dutenak eta, horretan, **autokontzeptua** behar bezala eraikitzea eta autoestimua garatzea.
- **Familiarekiko harremanak** bultzatzea eta, horretan, parte hartzea, lankidetza eta informazioa lantzeko estrategiak garatzea.
- Gaitasunak behar bezala lantzea, **Haur Hezkuntzako lehen zikloa bukatzean**, haurrak mailaz maila eta progresiboki igaro daitezzen **bigarren ziklora**.

Adierazitako oinarri metodologikoak eta helburuak betetzen direla bermatzeko, **Nubaris Dimentsioak** proposatzen du adimen guztiak sustatzen dituzten jardueren bidez lantzea materialak, haur bakoitzaren ikasteko modua errespetatuz eta bultzatuz betiere. Beraz, irakasleak era guztietako jarduerak aurkituko ditu, honako hauek sustatzeko:

- **Garapen psikomotorra.** Garapen horretako jardueri esker, hurrek beren gorputza ezagutzeko eta erabiltzeko trebetasunak landuko dituzte, eta organismoaren funtzio neuromotorrak eta funtzio psikikoak prozesu bakarrean uztartuko dituzte. Garapen horren barruan sartzen dira motrizitate larria eta xehea, gorputz eskemaren ezaguera eta ukimenaren perzeptzioa, baina baita gorputza ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko erabiltzea ere.
- **Garapen kognitiboa.** Garapen horren bidez, pentsamendu logikorako oinarritzko trebetasunak eta behar bezala arrazoitzeko ahalmena sustatzen dira. Jolasaren eta materialak eskuekin lantzearen bidez, hurrek areagotu egiten dute tamainak, formak, koloreak, egoerak, oinarritzko kantitateak eta halakoak identifikatzeko eta interpretatzeko ahalmena.
- **Hizkuntzaren garapena.** Garapen horren barruan lantzen diren jardueretan, hurrek ahoko hizkuntza erabili beharko dute komunikatzeko, gauzak adierazteko, ikasteko eta gozatzeko, bai eta ideiak eta sentimenduak adierazteko ere. Hartara, pixkanaka-pixkanaka ikusiko dute besteekin harremanak izateko, bizikidetzara arautzeko eta beren kultura ingurunera hurbiltzeko baliabide bat dela hizkuntza.
- **Garapen afektibo-soziala.** Garapen horren barruko jarduerak lagungarriak dira hurrek irudi positibo eta egoki bat sortzeko beren buruaz; emozioak eta sentimenduak identifikatzeko eta adierazteko; ekimenez jokatzeko; gauzak zenbait hizkuntzaren bidez adierazteko; eta besteekin behar bezalako harremanak izateko. Gainera, laguntzeko, lankidetzan aritzeko eta beren gizarte testuinguruari dagozkion arauak eta balioak errespetatzeko jarrerak eta ohiturak bereganatuko dituzte.

Nubaris Dimentsioa lehen zikloan



Estimulazio goiztiarra

Estimulazio goiztiarraren barruan sartzen dira zenbait arreta, zaintza eta ekintza, helburu dutenak **bere ahalmen osoa** ahalik eta gehien **garatzeko** behar dituen esperientziak ematea haurrari.

Bizitzako lehen urteak dira haurren heziketaren garairik esanguratsuena. Izan ere, lehen haurtzaroan zehar, egitura biofisiologikoak eta psikologikoak eratzen eta heltzen ari dira, eta une horretan finkatzen dira berezitasun fisikoen eta nortasunaren alderdi psikologikoaren funtsezko oinarriak.

Estimulazioak haurraren bizitzako etapa horretan izaten ditu eraginik nabarmenenak garapenean, heltze aldiaren dauden prozesuen gainean jarduten duelako. Estimuluak, oro har, pertsonen funtzioen baten gainean nolabaiteko ondorioa duten eraginak dira, hau da, erreakzio bat sortzen dute.

Haurrek, jaiotzen direnean, ez dute aurrez ezarritako portaerarik kortex zerebralean; bizirik iraungo dutela eta ingurunera egokituko direla bermatzeko mekanismo erreflexu batzuk baino ez dituzte. Nolanahi ere, burmuinak izugarritzko gaitasuna dauka gizadiak pilatutako esperientzia kulturala barneratzeko, eta gizarte inguruneak transmititzen dio esperientzia hori, haurra hazteaz eta hezteaz arduratzen diren helduen bidez; batez ere, bizitzako lehen urteetan zehar. Beraz, ez da nahikoa jaiotzen garen unetik burmuin bat izatea, trebetasun psikikoak garatzeko. Nahiz eta burmuin ehuna eta aktibatuak izateko zain dauden konexioak eduki, beharrezkoa da **estimulazio egokia jasotzea**; izan ere, modu aktiboan erabiltzen ez diren konexioak atrofiatu egiten dira edo beste funtzio batzuetarako erabiltzen dira azkenean.


Ingurunetik jasotzen diren estimulatuak barneratzeko gaitasunari **burmuinaren plastikotasuna** deritza. C. Cotman neurologoak honela definitzen du: «burmuinak zenbait betebeharrak, estimulutara eta ingurunetara egokitzeko duen gaitasun orokorra da, hau da, neuronen artean konexio berriak sortzea, eta neuronen kopurua bera izanik ere, haien arteko konexioak edo sinapsia aldatzea edo areagotzea, zenbait betebeharrak erantzuteko». Burmuinaren funtzio plastikoa ez litzateke posible izango, kortex zerebralak genetikoki zehaztutako portaerak izango balitu.

Zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren estimulazioak, burmuineko egituren eraketaz eta burmuinaren plastikotasunaz dakiguna oinarritzat hartzeaz gain, kontuan hartzen ditu **garapen aldi potentzialak** edo aukera leihoak ere. Horrela esaten zaie gaitasun edo funtzio psikiko jakin batek adierazpen eta garapen gorena lortzeko baldintzarik onenak biltzen dituzten uneei. Hainbat ikerketaren arabera, denbora tarte mugatu batez baino ezin da estimulatu neurona eremu jakin bat, neuronen arteko konexioak sor daitezen sustatzeko. Haurrek ez badituzte estimulu egokiak jasotzen denbora tarte horretan, gaitasun edo funtzio hori gabeziekin eratzen da edo ez da eratzen.

Estimulazio goiztiarrak arrisku egoeran dauden haurrekin izandako emaitza onek, baita nagusiki psikologian, biologian eta neurologian egindako aurrerapen zientifikoek ere, garbi erakutsi dute bizitzako lehen urteek berebiziko garrantzia dutela pertsonen garapenean. Hori dela eta, honako ideia hau sortu da: hezkuntza eraginen sistema bat antolatzea, haurrak jaiotzen diren unetik bertatik, haien ahalmen fisiko eta psikiko guztien garapena aktibatuzko, arrisku egoeran egon edo ez.

Gaur egun, estimulazio goiztiarraren helburua ez da garapena bizkortzea, baizik eta haurraren ahalmena **guztiz aprobetxatzea**, etorkizuneko ikaskuntzetarako oinarri sendo bat osatuko duten hainbat esperientzia eskainiz. Estimulazio programarik onenak ere huts egin dezake, baldin eta programa horren ardura duen helduak gehiegizko itxaropenak baditu eta bere garapen eta heltze mailarekin bat ez datozen ikaskuntzak jartzen badizkio haurrari. Izan ere, haurrak hutsegite ugari pilatuko lituzke, eta horrek zaildu egingo luke eboluzio egokia izatea. Haurraren garapenerako oso kaltegarria da haurraren ahalmenak eta gaitasunak modu artifizialean behartzea, adin horretako haurren batez bestekoak baino lehen barnera ditzan trebetasunak, edo haurrak duen baino heldutasun handiagoa eskatzen duten jarduerak eginaraztea.


Irakasleak zenbait alderdi hartu behar ditu kontuan:



Estimulazio goiztiarra Nubaris Dimentsioan

Nubaris Dimentsioa eboluzio eredu orokor batean oinarritzen da, eta haur edo talde bakoitzari erraz egokitzeko moduko zenbait estrategia ematen ditu.

- **Garapen aldi potentzialean jarduteko** diseinatuta dago; **eboluzio mailarako egokiak diren jarduerak** proposatzen ditu eta, helduaren laguntzarekin, gidaritzapean edo lankidetzarekin, haurrak oraindik ongi egiten ez dituen beste jarduera konplexuago batzuk estimulatzen ditu. Materialen helburua ez da haurrek dagoeneko dituzten trebetasunak lantzea, baizik eta, irakaslearen laguntzaz, beste trebetasun batzuk gara ditzaten sustatzea; adibidez, forma biribilak identifikatzeko jarduerak egingo dituzte haurrek, oraindik horretarako gai izan ez arren. Izan ere, irakasleak laguntza egokia emango die, zenbait objektu biribil eskainiz, eskuekin haiek seinalatzen lagunduz, formaren izena esanez... Horri esker, haurrek modu aktiboan parte hartuko dute, eta hautazkoak ez diren funtsezko loturak egingo dituzte eduki berriaren (forma biribila) eta aurrez eraikitako ezaguera eskemen artean, formak eskuekin erabiliz.
- Haurraren **adimen guztiak estimulatzeko** dituzte, eta haurrak garatzen dituen **ahalmen aplikazio praktikoari ematen dio garrantzia**, hau da, gai izateari. Emango dugun informazioa argia eta koherentea izango da, ongi antolatuta egongo da, eta haurrak lehenetik dituen informazioekin lotzeko modukoa izango da, hau da, aurretiko ezaguerekin lotzeko modukoa. Hartara, adimen bakoitzarekin lotutako ahalmen guztiak barnean hartzen dituen oroimena estimulatuko dugu, oinarritzko zenbait prozesu aktibatuz, hala nola arreta, pertzepzioa, oroimena, hizkuntza eta pentsamendua. Gainera, haurrak eguneroko bizitzako edozein unetan erabil ditzakeen ikaskuntzak eraikitzea bultzatuko dugu; izan ere, zenbait egoeratan erabiliko dituztenez, berehala finkatuko dituzte.
- Lehen zikloko haurren ahalmenak estimulatzeko, Nubaris Dimentsioak honako hau proposatzen du:



- Gainera, proiektuak **proposamen malguak** ematen ditu; izan ere, era askotako jarduerak ugari ematen ditu, helburu eta eduki bakoitza egokitzeko. Gorputz eskema, adibidez, material askotan lantzen da: ipuinetan eta horma irudietan, aurretiko jardueretan eta laminatiko jardueretan, psikomotrizitate saioetan, musika eta gorputz adierazpenean...

Masajeak: komunikazio afektiboa eta garapena

Azala gizakion gorputzaren estalkia da, barrualdea eta kanpoaldea bereizten ditu, muga gisa balio du eta ingurunearekin harremana, komunikazioa eta trukea izateko aukera ematen digu.

Hiru urtetik beherako haurrekin harremana izateko modu berezi bat da masajea. Egiaztatu da masajea **onuragarria dela** haurraren **hazkuntzarako eta garapenerako, eta maitasunez betetako une bereziak sortzen dituela**. Ikasgelan, masajeak erabil daitezke harreman afektiboak izateko; hartara, harmonia fisikoko eta emozionaleko giroa sortuko da, eta giro hori eskola-tik kanpora ere zabalduko da. Haurrek oso ongi onartu ohi dituzte masajeak. Izan ere, helduak ez bezala, haurrak ez dira asaldatzen ukitzen dituztenean, Mendebaldeko joera kultural baten ondorioa baita ukitzean asaldatze hori. Oraindik ez dute ikasi deseroso sentitzen kontaktu fisikoarekin, eta helduak ikusten badu haurrak nolabaiteko erresistentzia jartzen duela, oinetan eta eskuetan has dezake masajea, haurrak gorputzeko beste atal batzuetara zabaltzea nahi izan arte, hala nola hanketara, besoetara, bizkarrera eta aurpegira.

Masaje saioak atsegina izan behar du haurarentzat. Heldua behartuta sentitzen bada, masajeak huts egingo du, teknika ongi aplikatu bada ere. Helduak afektibitatea komunikatzen badu, berriz, masajeak funtzionatu egingo du, aplikatutako teknika oso ona ez bada ere.

Irakasleak honako alderdi hauek hartu behar ditu kontuan:

- Entzun haurraren gorputz komunikazioa; ez jarraitu aurrera, haurrak ez badu laztantzerik nahi. Errespetu horrek haurrari erakusten dio berak onartzen badu soilik jasoko dituela laztanak eta, horrela, bere burua errespetatzen, eta bere gorputza eta gainerakoena errespetatzen ikasiko du.
- Erakutsi maitasun, afektu eta pazientzia handia, saioa hasi aurretik, saioak iraun bitartean eta saioa amaitu ondoren. Ahal den guztietan, begiratu begietara haurrari eta hitz egin goxo eta maitekiro.
- Egin saioa haurrak jan duenetik ordu eta erdira gutxienez. Irakasleak ziurtatu behar du eskura duela behar duen guztia eta ezin dio eskuaz haurraren gorputza ukitzeari utzi une batean ere.
- Ziurtatu gelako tenperatura epela dela, eta ez dela haurra azazkal luzeekin, bitxiekin edo esku hotzekin ukitzen.
- Kontrolatu presioa, laztanak irmoa izan behar du eta. Ez laztandu bizkarrezurra, izterondoak, besapeak, belaunaren atzealdea, ukondoko artikulazioaren barnealdea eta, oro har, ez laztandu zuzenean gongoil linfatikorik.
- Ez eman masajerik, baldin eta haurrak artikulazio ahulak baditu, zornaduraren bat edo legenen bat baldin badu edo medikamentuak hartzen ari bada. Txertoren bat jarri bazaio, itxaron gutxienez ere aste bat.
- Aldatu aurreikusitako saioak, baldin eta haurrak masajearen bidez arindu daitekeen arazo espezifikoren bat badu.

Nubaris Dimentsioak era askotako **masaje** saioak egiteko informazioa ematen du, eta gorputzeko zenbait ataletan jardutea errazten du.

Jolasak lehen haurtzaroan

Altxorren saskia edo saskitxoa

Zer da?

Altxorren saskia edo *saskitxoa* *jarduera proposamen globalizatu* bat da. Elinor Goldschmied-ek sistematizatu zuen, haur txikiekin erabiltzeko. Haurrek eserita egoten ikasten dutenetik oinez hasten diren arte erabiltzen da. *Altxorren saskia* ezaugarri jakin batzuk dituen ontzi bat da, eta era askotako *altxorrak* ditu barruan, zenbait testuratakoak, formatakoak, bolumenetakoak, koloretakoak, trinkotasunetakoak, pisutakoak eta soinutakoak, *haurrak zentzumen guztiak erabil ditzan*, haiekin jardutean.

Ontziaren barruko materialen edo *altxorren* bidez, gauzak aztertzea, ikertzea eta eskuekin lantzea sustatzen da. Horrez gain, jakin-mina, interesa, sormena, pentsamendua, ingurunearen ezaguera, pertsonen arteko harremanak eta halakoak sustatzen dira, zenbait ekin-tzaren bidez: eustea, kosk egitea, miatzatzea, botatzea, jotzea, eskuekin lantzea... Helburua da haurrek beren buruari galdetzea: «Zer da hau?».

Zer material erabiltzen dira?

Erabiltzen diren objektuak **ikasgelako baliabide materialak** dira, eta irakasleak zaindu, garbitu, konpondu, bota eta konbinatu egingo ditu aldian behin, sailkapen baten arabera. Komeni da haurrentzat arriskutsuak ez diren berrogei edo berrogeita hamar *altxor* edukitzea. *Altxorren* konbinazioa bi edo hiru astetik behin aldatuko da, edo bestela, haurren interesa pizteari uzten diotenean, baina beti *altxor* horietako batzuk utzita erreferentziatzat. ***Altxorrek* haurren zentzumenak estimulatzeko eta informazioa ematen diete beren natura eta gizarte ingurune hurbilari buruz**, eta ez dute kostu ekonomikorik edukitzen; familiariek lagun dezakete, nahi izanez gero, irakasleak eskatutako objektuak eramanez.

Nolakoa da ontzia?

Ontzia izan daiteke zurezkoa, kartoi gogorrezkoa, zumezkoa, espartuzkoa edo haurrentzat segurua den beste material erresistente batez egindakoa. Formari dagokionez, berriz, karratua edo angeluzuzena izan daiteke, alde bakoitzak 35 cm inguru dituela, edo bestela, biribila, 40 cm-ko diametroa duela, hondo lauarekin eta heldulekurik gabe. Oso garrantzitsua da ontzia egonkorra izatea eta ez erortzea haurrak haren kontra jartzen direnean, bai eta barruko edukia erraz eskuratzeko moduan edukitzea ere. Horregatik, zortzi zentimetroko garaiera izan dezake gehienez ere.

Non egin daiteke?

Eremu zabal bat jarriko da ikasgelako lurzoruan, beti bera, haurrek *altxorren* saskia aztertzeko, arreta galarazten dien ezer gabe eta etenaldirik gabe, *altxorrak* iker-tzen eta haiekin esperimendatzen jar dezaten arreta.

Zer iraupen du?

Jolasean parte hartzen duten haurren erritmoaren baitan dago jardueraren iraupena, eta irakaslea alboan egongo da saio osoan zehar, segurtasuna eta egonkortasuna emateko, baina ez du jolasean parte hartuko. Haurrek aukeratuko dituzte *altxorrak*, bai eta haiek aztertzeko eta erabiltzeko moduak ere.

Jolas heuristikoa

Zer da?

Altxorren saskiaren edo *saskitxoaren* jarraipentzat har daiteke. Hauek dira bi jolasen arteko desberdintasun nabarmenenak: **haurrek, jolas egitean, duten asmoa**; eta jolas heuristikoa, haurrek **materiala jasotzen lagundu behar dutela, sailkapenak eginez**.

Hamabi hilabete dituztenetik hogeita lau hilabete dituztenera bitartean, haurrek mugitzeko, ikertzeko, objektuek esku artean erabiltzean nola jokatzeko duten ikus-teko eta izan ditzaketen erabilerak probatzeko beharra sentitzen dute. Beren kabuz ikertzen eta aztertzen ari direnean, baldintza egokietan eta material egokiekin, nabarmen areagotzen dute jardueran arreta jartzeko ahalmena. Jolas heuristikoa, haurrek beren buruari honako galdera hauek egitea nahi dugu: «Zer da hau?» «Zertarako balio du honek?» «Zer egin dezaket honekin?».

Zer material erabiltzen dira?

Altxorren saskian adierazitako material berberak erabiltzen dira. Objektuak ehunezko poltsatan jarriko dira, eta poltsak lokarri batekin itxiko dira. Poltsa bakoitzean, objektu mota bat sartuko da. Poltsak esekitoki lerro batean jar daitezke zintzilik, erabiltzen ez direnean, eta esekitoki bakoitzean dagokion poltsaren barruko objektu motaren izena idatz daiteke.

Nola antolatzen dira saioak?

Saioa hastean, irakasleak zenbait neurritako potoak sakabanatuko ditu jolas eremuan, eta erabiliko diren objektu poltsak aukeratuko ditu. Objektuak lurrean jarriko ditu, zenbait pilatan bereizita edo nahasita, haurrek nahi dituztenak aukera ditzaten. Denbora tarte bat utziko die, zerekin eta nola jolastuko diren pentsatzeko. Irakaslea begira egongo da, baina ez du parte hartuko jolasan, behar-beharrezkoa ez bada behintzat. Objektuak oso sakabanatuta badaude lurrean, berriro antolatuko ditu isilean, haurren arreta erakartzen jarrai dezaten.

Nola amaitzen da?

Jasotzeko unean, irakasleak poltsa bati eutsiko dio esku artean irekita, eta objektu kategoria jakin bat jasotzeko eskatuko die hurrei, haiek eraman, eta poltsan sar ditzaten. Objektu bat izenda eta erakuts dezake eredu gisa, haurrek jakin dezaten zein jaso behar dituzten lurretik poltsara eramateko. Saioaren fase horretan, garrantzitsua da haurren lankidetzaren bultzatzea eta gorai-patzea, eta haurrak lankidetzan aritzera animatzea.

Zer iraupen du?

Haurren interesaren eta arretaren baitan dago jolas saioen iraupena. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da hamabost minutu utzi behar direla gutxienez ere materiala jasotzeko eta sailkatzeko.

Jolas sinbolikoa

Zer da?

Jolas sinbolikoa oso jarduera garrantzitsua da haurren pentsamendua garatzeko. Haurrak hemezortzi hila-bete inguru dituen hasten da agertzen gaitasun sinbolikoa, eta mekanismo eta prozesu kognitibo garrantzitsuak dakartza berekin; adibidez, objektuen eta pertsonen arteko konparazioen nahiz analogien eta oroitzapenen eskemak koordinatzea, mugitzeko eta komunikatzeko trebetasunak martxan jartzeko.

Imitazio jolasek pertzepzio eta adierazpen mentala estimulatzeko balio dute, eta horrek gaitasun sinbolikoa estimulatzen du pixkanaka-pixkanaka.

Zein dira helburuak?

- Gizarte harremanetan sortzen diren harremanak eta interakzioak ulertzea eta haien arabera jokatzeta.
- Pentsamendua egituratzen hastea.
- Pentsamendu egozentrikoa alde batera uzten joatea.
- Pentsamendu abstraktua garatzea.
- Behatzen, konparazioak egiten, loturak egiten, ordenatzen eta sailkatzen trebatzea.
- Aztertzen, laburtzen eta ebaluatzen hastea.
- Ekintzak eta egoerak deskribatzea eta argudiatzea.
- Barneko emozioak kanporatzea.
- Norberaren nahiak, gatazkak eta emozioak bideratzea.
- Gizarte testuinguruaren berri izatea eta norberak testuinguru horretan izan dezakeen egitekoaz jabetzea.
- Gizarte eginkizunak, familiako harremanak eta lanbideak ezagutzen hastea.
- Pertsona helduen munduaren berri izatea eta norberaren gain hartzea zenbait eginkizun.
- Gizarte harremanak izaten eta pertsonen arteko gatazkak konpontzen laguntzea.
- Bizikidetzarako ohitura egokiak hartzea.

Nubaris Dimentsioak Margolin maitagarriaren txokoa ematen du, ezustekoen kaxa edo altxorren kuxta jartzeko gunegisa. Txoko horretan, unitatearekin lotutako elementuak eta jostailuak ager daitezke, lan-du beharreko gaia eguneroko egoeretan aztertzeraz eta ikertzeraz bultzatzeko haurrak.


Horrez gain, horma irudiak, ipuinak, laminak eta halakoak pentsamendu sinbolikoa estimulatzeko diseinatu daude, eta jolas sinbolikoetan modu aktiboan parte hartzeraz bultzatzen dute haurra, eguneroko bizitzan ikusten edo bizitzen dituen egoerez jabetuz eta haiek barneratuz eta ulertuz joan dadin. Ipuinak, horma irudiak eta laminak lantzean, haurra **errealitatearen eta alegiazko munduaren artean aritzeko** jarduerak proposatuko dira. Hartara, zenbait egoera biziko ditu eta adierazpen mentalak sortuko ditu, eta ingurunea ulertzen, arazoei aurre egiten eta zenbait egoeraren irtenbideak aurkitzen lagunduko dio horrek.

Tailerrak

Gizarte ikaskuntza jasotzeko aukera ematen duen gune eta une pedagogiko bat da tailerra; haren antolaketari esker, haurren esperientziatik abiatuta eta elementu berriak gehituta, ikaskuntza berriak lortzen dira, bai eta bizitza errealeko egoeretarako eta arazoetarako irtenbide berriak ere.

Tailerrak **taldeko kide guztien arteko interakzioa sustatzen du, bai eta kide bakoitzak bere sortze ekarpena egitea ere**. Hartara, hurrek modu aktiboan hartzen dute parte esperimentazioan eta sorkuntzan, eta sormenezko pentsamendu autonomoa eta kritikoa garatzen dute, elkarrekin lan eginez, parte hartuz eta lankidetzan arituz taldeko lanetan, eta ez elkarrekin lehiatuz. Gainera, arazo praktikoen irtenbideak aurkitzeko aplika ditzakete ezaguerak eta ideiak.

Tailerrean, **irakasleak bitartekari lanak egin behar ditu**, bere irizpidea ezarri gabe. Hurrek behatzeko, alderatzeko, loturak egiteko, ordenatzeko eta sailkatzeko baldintza egokiak sortu behar ditu; hausnartzera eta aztertzeraz bultzatu behar ditu haurrak, eta egindako urratsak, aplikatutako ezaguerak, eta erabilitako prozesuak eta jarrerak berrikustea, barneratzea eta ebaluatzea sustatu behar du.



Metodologia honekin, hurrek aukera dute **sortzeko, adierazteko, sentitzeko, behatzeko, esploratzeko, harremanak izateko, interakzioa izateko, hitz egiteko, proposatzeko, komunikatzeko** eta, are garrantzitsuagoa dena, **lankidetzaren bidez lan bat egiten ikasteko**.

Tailerrak **antolatzean, kontuan hartzen dira haurren ezaugarriak, ahalmenak eta interesak**, pentsamenduaren trebetasunak erabiltzea, hitz egitea, ideiak eta iritziak adieraztea eta komunikatzea, arretaz entzutea, ideiak alderatzea... baina baita zer gune eta material ditugun eskura, nola multzoka ditzakegun eta halakoak ere.

Tailerrak Nubaris Dimentsioan

Tailerra aukeratu dugu estrategia metodologiko gisa, haurrak parte hartze aktiboa izatera bultzatzeko. **Tailerraren metodologia sinplifikatuko eta haurren ahalmenetara egokituko da**, noski. Horregatik, irakasleak parte hartze handiagoa izango du saioetan, eta haurrek sortzen dituzten pentsamenduen gidari eta bozeramaile bihurtuko da: argi eta garbi azalduko du egin beharreko jarduera, eredu gisa jardungo du, laguntzeko prest egongo da beti, haurrek gorputz hizkuntzaren bidez adierazten dutena hitzez esango du, haurren beharren eta nahien ahotsa izango da, azalduko die zer ikaskuntza eta lorpen egin dituzten, zer ideia ari diren sortzen...

Azaldutako horretatik eta etapa honen beharretatik abiatuta, honako hauek aurki ditzakegu Nubaris Dimentsioan:

- Adimen emozionalen tailerra.
- Hondakin materialen tailerra.

Proiektukako lana

Proiektukako lana eredu pedagogiko bat da, curriculum taldean ebatzi beharreko problema interesgarrien inguruan antolatzea oinarritzat duena. Funtsean, haurren premientzako eta interesentzako konponbideren bat bilatzean datza, eta zenbait alorren arteko lotura bultzatzea du helburutzat.

Denboraren eta **jardueren antolaketa** ez da zurruna; aitzitik, talde guztiek egin ditzakete proposamenak, eta beharrezkoa da irakasleak koordinatzea eta orientatzea ikasleen lana. Protagonistek zer aukera eta muga dituzten (beren adinarekin, garapen mailarekin, bizilekuarekin, eta abarrekin lotuta, zehatz esatera), proiektu bakoitzaren iraupena, konplexutasuna eta garrantzia ere halakoxeak izango dira.

Eredu honetan, **talde lanak aparteko interesa du**, denek parte hartzeko pentsatuta baitago, eta, alde horretatik, hura egiteko, talde txikien ekarpenak gogoan hartu beharko dira, bai eta talde osoarenak ere, zenbaitetan.



Honako hauek ere **proiektuko ezaugarri garrantzitsuak dira**:

- Haurrak bilaketak, gogoetak eta saiakuntzak egiten ari direneko uneak.
- Irakasleak jardueren garapenean parte hartzen dueneko.
- Jolas eta jarduera blokeek proiektuarekin duten lotura.
- Familien parte hartzea, aurkezten den proposamenari buruzko ikerketan eta informazioan.

Lan proiektu bakoitzak elkarrekin lotutako ekintzak eta jarduerak behar ditu, eta horiek zentzua izango badute, haurren interesekin eta ezaugarriekin uztartu beharko dira. Haurrek galderak egitea, konponbideak bilatzea eta bidera irteten zaizkien gertaerak edo proposamenak ikertzea: horixe da lan hauen xedea.

Kilpatrick-en iritziz, lau proiektu mota bereiz daitezke:

- **Sormenezko proiektuak**, ideia edo plan bat gauzatzea oinarritzat dutenak; esate baterako: hiri baten maketa eraikitzea, ospakizun txartelak egitea eta dramatizazio bat antzeztea.
- **Artelanak hautemateko eta birsortzeko proiektuak**, adierazpen estetikoek gozatzea oinarritzat dutenak, hala nola narrazio bat entzutea eta artelan bati begira egotea.
- **Problemak ebazteko proiektuak**, auzi intelektualen bati erantzutea helburu dutenak; objektu astunak zergatik hondoratzen diren edo eguraldi aldaketen kausa zein den, esaterako.
- **Ikaskuntza espezifikoak erdiesteko proiektuak**, edo trebetasun jakin bat lantzekoa, hala nola hitzen soinua aztertzea, zenbakiak eta kantitateak lotzea eta problemak ebazteko baliabideak erabiltzea.

Proiektuak Nubaris Dimentsioan

Nubaris Dimentsioak sinplifikatu egin du proiektuen metodologia, eta haurren ahalmenen garapenera egokitu du. Bi urteko haurren kasuan, **hiruhilekoko proiektu** bat proposatzen du. Irakasle bakoitzak erabaki beharko du zenbat denbora emango dion bere programazioan proiektuari, kontuan hartuta denbora tarte hori haurren interesaren arabera luza daitekeela gero ere. Honako hauxe da egitura:

- **Hezkuntza asmoa.** Epigrafe horrek tartean dau den asmoen berri ematen du. Proiektuaren helburu orokorraren berri ematen du.
- **Helburuak eta oinarrizko gaitasunak.** Atal bi-koitz horretan, helburu espezifikoak jasotzen dira, bai eta egindako lanaren bidez sendotzen eta garatzen diren oinarrizko gaitasunak ere.
- **Hasierako motibazioa eta aurretiko lana.** Hainbat jarduera garatzen dira, landuko diren edukiekin lotuta, hurrek dituzten ideiei eta bizipenei buruzko informazioa jasotze aldera. Irakasleak adiskidetasunez eta errespetuz parte hartzera bultzatu behar ditu ikasleak.
- **Garapena.** Jarduera adierazgarrien bitartez prestatutakoa praktikan jartzeko garaia da. Irakasleen egitekoa izango da ikasleak akuilatzea, aurkezten zaizkien problemak ebazteko modu berriak arretaz azter ditzaten, eta errealtatearen hainbat alderdierikiko interesa piztea, beren bizipenak ikaskuntza adierazgarri bihurtzeko. Hurrek beren ezaguerak

zabaldu, eta beren gaitasunak gara ditzaten, hainbat jarduera proposatuko dira, honako hauek oinarritzat hartuta: *hizketan aritu, behatu, egin, adierazi, bizi*.

- **Ondorioa.** Aztertu eta hausnartu ondoren, auto-ebaluazioa egiteko garaia da. Irakasleak zuzentzen du fase hori. Hurrek (irakaslearen laguntzarekin, betiere) galderei erantzuten diete; beren bizipenak kontatzen dizkiote elkarri; biribilekoan parte hartu, eta elkarri entzuten diote; irakasleak, berriz, denen parte hartzea bultzatzen du; ideien trukea koordinatzen du; beharrezko irizten dionean, esku hartzen du; eta emaitzei buruzko hausnarketa bultzatzen du. Horri esker, irakasleak, egindakoa berrikustez batera, ikasteko eta irakasteko prozedurak hobetuko ditu taldean.

Nubaris Dimentsioan, ikasitakoa aplikatzeko, elkarbanatzeko eta identifikatzeko jarduerak proposatzen dira. Ikerketaren emaitzak alderatu ondoren, ondorioak ateratzen dira, erakusketak antolatzen, eta abar. Irakasleak egokitzen duen euskarrian eta formatuan, fisikoan nahiz digitalean, jaso liteke gaiari buruz bildutako informazio guztia: horma irudi handi batean, informazio liburu batean, gloster batean, aurkezpen multimedia batean... Horiek guztiak eskura izan behar dituzte hurrek, beren lana berrikusteko eta gogora ekartzeko.

Hizkuntza zero urtetik hiru urtera bitartean

Hizkuntza da, inolako zalantzarik gabe, gizakiak komunikatzeko darabilen baliabide nagusia, bai eta konplexuena ere. Hizkuntzaz jabetzeak haren mekanismo formalak ikastea eta komunikazio tresnatzat erabiltzea esan nahi du.

Dela hizkuntza arazoak prebenitzeko, dela hizkuntza mekanismo formalak irakasteko, beharrezkoa da ondo jakitea adin goiztiar horietan hizkuntzaren garapenak zer etapa ebolutibo dituen, bai eta hitzeko hizkuntza garatzea eta hizkuntza idatzira hurbiltzea errazteko estrategiak eta jarduerak diseinatzea ere.

Hizkuntza lehenengo urtean zehar

Haurrak oso ongi bereizten ditu ahotsaren bolumena, tinbrea eta tonua. Negar egitea da, funtsean, haurrak komunikatzeko duen modua, baina laugarren hilabetetik aurrera, **fonazioak** egiten hasten da zenbait tonutan, bai eta bere soinuz gozatzen ere. Sei hilabeterekin, **silabak** esan ditzake; adibidez, *pa, ma, ba, da, ta eta ga*. Zazpi-zortzi hilabetetik aurrera, bi silaba zezel-tzen hasten da, hala nola *papa, dada eta baba*, eta kontsonante-bokal kateak errepikatzen ditu erritmoarekin eta intonazioarekin. Urtebete ingururekin, **holofraseen etapa** hasten da: haurrak hitz bat erabiltzen du (ez oso argia), zenbait esanahi dituen eraikuntza gramatikal oso gisa.

Hizkuntza bigarren urtean zehar

Hamabi hilabeterekin, **keinuen hizkuntza** da nagusi, oraindik ere, haurraren komunikazioan. Keinu landuagoak erabiltzen ditu nahiak eta beharrak komunikatzeko, eta objektuetatik eta pertsonengandik deigarri zaiona adierazi nahi izaten du. Maiz entzun ohi dituen hitz batzuk erabiltzen ditu, pentsamendu konplexu bat adierazteko; hitz horren esanahia testuinguruaren arabera eta hitzarekin batera egindako keinuen arabera interpretatu behar da. Haurrak urte eta erdi duenetik aurrera, edo zertxobait lehenagotik, erraztasun handiagoa du bi hitz elkartzeko eta esaldiak osatzeko, eta **hizkuntza telegrafikoa** erabiltzen du. Azken hiru hilekoan, haurraren hiztegiak berrehun eta berrogeita hamar bat hitz izan ditzake, eta sinbolizazio hizkuntza garatzen ari da. Orainaldian kontatzen ditu bizipenak, bakarriketan aritzen da bakarrik jolasean diharduen bitartean, helduen elkarrizketak imitatzen ditu, eta galderak egiten hasten da, harremanetan jartzeko.

Hizkuntza hirugarren urtean zehar

Hizkuntza ulerkorra bilakaera azkarra du, eta haurrak esaldi luzeak eta konplexuak ulertzen ditu, hainbat aditzen esanahia ulertzen du, eta helduak aipatutako ekintzekin lotutako irudiak seinatzen ditu.

Hobeto ulertzen ditu egiten zaizkion galderak eta erantzun egiten die; hasieran, ekintzekin eta keinuekin, eta gero, ahoz. Objektuak izenez eta erabilerarengatik identifikatzen ditu, eta adjektiboak ulertzen hasten da.

Bere hiztegiara egunean hamar hitz berri gehitzera irits daiteke haurra. Hirugarren urtea hastean, bi hitzeko esaldiak osatzen ditu (izena eta aditza gehituta edo, bestela, izena eta adjektiboa gehituta). Noizbehinka, beste hitz bat gehitzen du, hirugarrena, eta, oro har, nahiko hizkuntza telegrafikoa erabiltzen du. Izenordain batzuk erabiltzen ditu, baina nahasi egin ohi ditu. Pertsona askoko elkarrizketetan parte hartu nahi duenean, ez ditu oso gauza koherenteak esaten.

Bi urte eta erdi inguru dituenean, galderak egiteko eta galderei erantzuteko gai da, bere sentimenduak adierazten hasten da, eta esaldi osoagoak egiten ditu, betetzeko hitzak erabiliz. Hiztegiaren barruan, partizipioak eta pluralak ditu, eta, batzuetan, kontsonante zail baten soinua aldatu, eta kontsonante errazago bat erabiltzen du haren ordez. 30 hilabetetik aurrera, gramatika arau gehiago aplikatzen ditu, eta zenbait adizki erabiltzen ditu. Gustuko du elkarrizketetan parte hartzea; soinuekin, bertsoekin, hitz segidekin, hitzen errimekin, abestiekin, galderen eta erantzunen jolasekin eta ohiturazko gidoiekin aritzea; eta soinuekin jolastea zentzurik gabeko hitzak sortzeko. Jarduera horiek guztiak lagungarriak dira hizkuntzari buruzko informazio berria barneratzeko eta antolatzeko, bai eta etorkizunean hobeto irakurtzeko ere.

Hizkuntza Nubaris Dimentsioan

Hizkuntza baliabideak atalaren bidez, ahozko hizkuntzaren zenbait erabilera eta funtzio gartzea sustatu nahi dugu. Atal horretan, zehatz-mehatz adierazita daude hiztegia, ahozko hizkuntzaren jarduerarik garrantzitsuenak, lortu nahi diren helburuak eta sustatzen diren gaitasunak.

- **Hizkuntza aurreko jarduerak.** Helburu dute hurrek ongi pasatzea, entzuten, arreta jartzeko eta soinuak egiteko organoak erabiltzen ari diren bitartean. Jarduera horiek jolas dibertigarriak proposatzen dituzte, honako hauek lantzeko: **onomatopeiak**, ezpainen, mihiaren eta masailen **motrizitatearen** artikulazioa, **arnasa hartzeko eta botatzeko** jarduerak eta **praxia fonoartikulatorioak**.
- Haurren eboluzio mailarako egokiak diren **hizkuntza jarduerak**. Interakzio naturalak, egoera ludikoak eta afektiboak eta eguneroko bizitzako bizipenak dituzte oinarritzat. Proposatutako jarduerak ez dute desorekarik sortuko hurrei esaten zaizkien hitzen eta haien benetako ulermen mailaren artean, eta mezuak ulertzen laguntzeko, irakasleak gorputz hizkuntza erabiliko du, eta adierazitako pertsonak eta objektuak aurkeztuko dizkie hurrei. Era berean, alde batera utziko da helduek hitzak haurren adinera eta tamainara egokitzeko duten joera hori.

Bestalde, jarduera horiek lagungarriak dira haurrek ahozko mezuak eta jarraibideak ulertzeko; komunikatzeko interesa eta nahia izateko eta komunikatzeko ahalegina egiteko; komunikazio egoeretan (elkarriketak, biribilekoak...) parte hartzeko; eta oinarrizko komunikazio harremanetarako arauak erabiltzen hasteko galderak egitean eta haiei erantzutean. Labur esanda, komunikazio trebetasunak ahalik eta ondoen barneratzea sustatzen dute. Ikasgelan haurrak hizketan eta eztabaidan aritzen dira elkarrekin, eta hizkuntzazko nahiz ahozko interakzioa asko garatzen da bertan; izan ere, haurrek gogor saiatu behar izaten dute eskolan zer edo zer aditzera emateko, etxeoaz bestelako giro bat delako eskolakoa, baita hiztegiari dagokionez ere.

Nubaris Dimentsioan, atal guztietan lantzen da hizkuntzaren garapena. Hizkuntzaren zenbait alderdi sustatzen dituzten baliabideak eta ikasteko egoerak eskaintzen ditugu:

- Unitate bakoitzeko **ipuin motibatzaileei** esker, honako hauek landuko dira: haurrek kontakizuna ulertzea; unitateko hiztegia barneratzea eta erabiltzea; argumentuari buruzko galdera erraz batzuei erantzutea; pertsonaia eta elementu nagusiak identifikatzea; eta irudiak interpretatzea eta irakurtzea. Irakurketa ohiturak har daitezke, testu euskarriak aztertu, ipuina familiakoekin irakurri... Ipuin horiek formatu normalean daude ikaslearen karpetan, eta formatu erraldoian, ikasgelarako.
- **Unitateetako eta inguruneko horma irudiak** tresna paregabeak dira, zenbait hizkuntza trebetasun sustatzeko: objektuak, pertsonaiak, ekintzak eta egoerak deskribatzea; ardatz globalizatzailearekin lotutako oinarrizko hiztegia erabiltzea; irudiak interpretatzea eta irakurtzea...
- **Une magikoak. Elkarrekin hazteko autonomia ohiturak liburuekin** egindako lanaren bidez, haurrek hobeto ulertuko dute beren oinarrizko beharrekin eta eguneroko jarduerekin lotutako hiztegia, barneratu egingo dute eta pixkanaka-pixkanaka erabili egingo dute.
- **Unitateetako laminak** lantzean, hizkuntza garatzeko baliabideak ematen dira, aurretiko jardueren barruan. Era berean, laminarekin egin beharreko lan espezifikorako, hizkuntzarekin lotutako zenbait jarduera proposatzen dira, laminan agertzen diren irudiak interpretatzeko, irakurtzeko eta ulertzeko.
- **Ohituren abestiak**, unitateetako abestiak eta laminak lantzeko proposatzen diren beste abesti batzuk oso lagungarriak dira hizkuntza garatzeko.
- Era berean, **literatura baliabide** ugariak hizkuntzaren garapena sustatzen dute.
- **Adimen biten programak** hiztegia zabaltzeko eta aberasteko aukera paregabea ematen du.
- Gainera, 2 urteko haurrentzako irakurketa programa bat du Nubaris Dimentsioak.

Irakurketa programa

Adin horietan, irakurritakoari arreta jartzeko eta irakurritakoa ulertzeko edukiak hizkuntza aktiboarekin batera lantzen dira. Horregatik, komeni da jarduera atseginak egitea **entzumena** garatzeko, **hitzak esatea** sustatzeko eta objektuaren **adierazpen grafikoa ikusteko**, elementu horiek funtsezkoak baitira kontzientzia fonologikoa garatzeko, eta kontzientzia hori era berean funtsezkoa baita irakurketa programa egoki bat izateko.

Nubaris Dimentsioko irakurketa programak esaldiak irakurtzea eta ulertzea errazten du. Hartara, haurrak hizkuntzaren egituraketa barneratuko du pixkanaka-pixkanaka. Proposamen didaktikoetan, irakurketa programa lantzeko orientabideak daude. Irakurketa programa pixkanaka-pixkanaka aurkezten da.

Hiztegi txartelak

Pertsonen, objektuen, animalien, eta abarren argazkiak dituzten laminak dira, eta argazkiaren azpian izena agertzen da, letra larriz idatzita. Haurarentzat esanguratsuak diren hitzak adierazten dituzte, eta ardatz globalizatailearekin lotuta daude.

Honako hauek dira ematen dituzten aukeretako batzuk:

- Hurrek ikusitakoa eta entzundakoa hauteman eta bereiz dezaten sustatzea.
- Objektu errearen, adierazpen grafikoaren eta hura izendatzeko hitzaren arteko erlazioaz jabetzea.
- Hurrek laminetako objektuen, pertsonen eta animalien izenak eta ekintzak identifika ditzaten lortzea.
- Haiek izenda ditzaten lortzea, beren hiztegi pasiboa nahiz aktiboa aberas dezaten.

Piktogramak

Ekintzen marrazkiak dituzten txartelak dira. Haietan ez da idatzitako ekintzarik zehazten, hainbat aditz denborarekin etor baitaitezke bat, egoera zein den. Horrek, gainera, komeniko balitz, piktogramari beste esanahi bat emateko aukera ematen dio irakasleari.

Honako hauek dira ematen dituzten aukeretako batzuk:

- Irudiak ekintzekin lotzea.
- Esaldiak egitea.
- Gramatika egiturak egiten hastea.

Liburutegi pertsonala

Ipuinek haurren emozioetara sartzeko aukera ematen digute, eta tresna garrantzitsuak dira haurrek beren burua eta inguruan duten mundua ulertzeko.

Nubaris Dimentsioaren ezaugarri nagusi bat liburutegi pertsonala sustatzea da, hau da, haurrek bere liburutegia osa dezakete, proiektu honetako ikasmailetan zehar ematen diren izenburuekin.

Ipuin motibatzaileen serie osoak aniztasun handia du, bai ipuinen gaiari dagokionez, bai eta estilo estetikoari dagokionez ere. Margolin maitagarria da ipuinen protagonista, argumentuak unitateetako ardatz globalizatzaileekin lotuta daude eta haurrek beren garapenean zehar bizitzten duten etapa bakoitzera egokitzen dira. Ipuinak egitean, kontuan hartu da ipuinek helburu didaktiko jakin batzuk izatea, ederrak izatea eta unitate didaktiko bakoitzerako jarritako helburuak eta gaitasunak barneratzen laguntzea haurrei.

Lehenengo liburuen bidez, **inguruan duen mundua ezagutzen eta sozializatzen lagundu nahi zaio haurrari**. Ipuinen argumentuak haurren ahalmenen garapen mailara egokituta daude, eta kontuan hartzen dituzte haien nahiak eta interesak, gaiak haurren esperientziekin lotuta daude eta. Beraz, istorioetan ez da agertzen pentsamendu abstrakturako ahalmena eskatzen duen egoerarik.

Ipuin motibatzaileak motzak dira, eta argumentu laburra eta erraza dute. Hizkuntza argia, erraza, aberatsa eta zehatza erabiltzen dute. Pertsonaia gutxi dituzte, haurrak denbora gutxian ezagutzen ditu pertsonaia horiek, eta ezaugarri berberak dituzte amaierara arte. Ipuinen argumentua lineala da, eta ez da haurrek arreta galtzea eragin dezakeen bigarren mailako argibiderik ematen.

Ipuinen liburuetan, **hitz idatzia agertzen da**; izan ere, lehenengo urteek berebiziko garrantzia dute irakurlearen prestakuntzan. Haurrek ikusiko dute hitz idatziaren ikurrek errealitate bat adierazten dutela, irudien ikurrek adierazten dutenaz bestelakoa, eta biak direla interpretatzeko modukoak.

Beharrezkoa da haurra konturatzea liburuetan ageri diren eta berak ulertu ezin dituen ikur horiek bat datozela helduak irakurtzean esaten dituen hitzekin. Hartara, hizkuntza idatziaren kodeez jabetzen hasiko da.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela adin horietan haurra ez hurbiltzea bakar-bakarrik liburura, baizik eta berarentzat adierazgarria den heldu baten laguntzaz egitea. Hartara, liburuarekin bizitzen dituen hasierako une horiek **zama afektibo handia** izango dute, **eta arrastoa utziko dute** haurraren inkontzientean. Hori oso garrantzitsua da etorkizunean haurra irakurle autonomo bihurtzeko.

Matematika lehen zikloan

Haurrek ume-umetatik inguruan izaten dituzte matematikaren oinarriak. Haurrek egunero egiten dituzten jarduerak logikaz eta matematikaz blai egoten dira, eta haiei aurre egiten dietela, eza-guera horiek erabiltzen dituzte inplizituki, haietaz baliatzen dira, eta hobetu ere hobetzen dituzte.

Matematikak dibertigarria, interesgarria eta probetxukoa izan behar du, haurren garapen integralerako baliagarria izango bada; horrela, haurrek beren eskolaldian aurrera egin ahala, kultura matematiko onuragarri eta eraikitzaile bat barneratu behar dute, beren bizitzako problemak matematikoki ebazteko motibazioa emango diena.

Ikasgelan, zenbait jolas egiten dira, haurren esperientzietatik abiatuta, ikasteko egoerak sustatzeko. Haurrek inguruan dituzten objektuak eta elementuak aztertzeke interesa izaten dutela aprobeztatuz, irakasleak **ikerketa eta esperimentazioa sustatuko ditu** (zaporea, kolorea, forma, pisua, tamaina, testura, plastikotasuna, gogortasuna, iragazkortasuna, tenperatura...), eta zenbait egoera sortuko dira, berez, **objektuak, elementuak eta materialak multzokatzeko, oinarritzko kantitate nozioekin** esperimentatzeko eta pixkanaka-pixkanaka **zenbakizkoak ez diren zenbatzaileak** erabiltzeko (guztia, ezer ez, bat, asko, gutxi...). Prozesu horretan, garrantzitsua da haurrak eguneroko bizitzan zenbakiak erabiltzen hastea; adibidez, haien esperientziarekin lotura afektiboa duten zenbakizko zenbatzaileak ezagutzen eta erabiltzen hastea (adina, gorputz atalak, zenbat panpinekin jolasten diren...), eta zenbait egoera funtzionaletan zenbatze prozesua erabiltzen dela jakitea.

Haurrak izugarri mugitzen direnez, irakasleak aukera asko ditu haurrak orientatzen ahalegintzera bultzatzeko, ingurune hurbilean gora, behera, barrura, kanpora, gertura, urrunera, gainera, azpira, ondora, ingurura, eta abarrera mugi daitezzen aginduz, bai eta haurrak pixkanaka-pixkanaka **espazioarekin lotutako terminoak eta adierazpenak** modu egokian **erabiltzen** hastera bultzatzeko ere.

Bere ahalmena garatzen duen heinean, eguneroko bizitzako jardueretan edo ohituretan denborekin lotutako termino erraz batzuk eta adierazpen batzuk ulertuz joango da haurra, eta pixkanaka-pixkanaka denbora adierazteko terminoak eta esamoldeak erabiltzen hasiko da, ohitura horien kokapena, iraupena, maiztasuna eta segida adierazteko. Helburua da denbora neurtzeko zenbait tresnaren berri izan dezan sustatzea (hormako erlojuak, asteko eta hilabeteko egutegiak, eguneroko ohituren horma irudiak, eguneroko jardueren plana...).


Matematika Nubaris Dimentsioan

Nubaris Dimentsioan, laminan egin beharreko lanaren aurretiko jarduerak proposatzen dira, garapen kognitiborako. Irakasleak zenbait estrategia aurkituko ditu, eguneroko bizitzako egoeretan gertatzen diren erlazio logikoei behatzeko eta haiei buruz hausnartzeko, bai eta haurrak egunero bizitzen dituzten nozioak eta erlazioak hitzez adierazten hastera bultzatzeko ere. Gainera, **lamina espezifikoan** bidez, haurrek tamainak, formak, koloreak, egoerak, oinarritzko kantitateak, eta abar landuko dituzte.

Nubaris Dimentsioak hainbat material eta iradokizun ditu, irakasleak baliabideak izan ditzan jarduerak modu autonomoan eta sormenez prestatzeko, pentsamendu matematikoa progresiboki garatzeko programa baterako.

Azpimarratu behar da, halaber, irakasleek gelan egiten dituzten eguneroko jardueretan, era askotako egoera matematikoak daudela, eta egoera horietaz baliatzea komeni dela, logikarekin eta matematikarekin lotutako helburuak lortzeko. Alde horretatik, proposamenean zehar, zenbait jarduera iradokitzen dira: asistentzien horma irudia, klimaren horma irudia... Jarduera horiek aukera paregabea izan daitezke aipatutako helburuak lortzeko.

Nubaris Dimentsioak zenbait material ematen ditu, zeharka lantzeko:



Haurren artea

Hezkuntzan, artea faktore erabakigarria da haurren bilakaeraren, sentipenen eta adimenaren prozesuan, eta **komunikatzeko eta adierazteko bide** garrantzitsua da. Gainera, bizitzako hainbat alderditan ageri da, edertasuna hautemateko, sortzeko, sentitzeko eta gozatzeko gaitasuna eratzeko eta garatzen eragiten baitu, lehen urteetatik.

Artea txikiengana hurbiltzeko prozesuaren baitan, irakasleak **plastikako materialekin eta teknikekin** egin beharreko lana ageri da. Garrantzitsua da erraz erabiltzeko moduko materialekin eta teknikekin ohitzeko jarduerak planteatzea, paperean arrasto grafikoa utziko dutenak edo zenbait ekintza egiteko aukera emango dutenak. Hurbiltzeko proposamen horiek sinpleak izan behar dute, eta haiekin batera haurren adinerako egokiak diren musika entzunaldiak, errimak, olerkiak, abestiak eta ipuinak balia daitezke.

Lehenengo saioetan, garrantzitsua da egunean material bat baino gehiago ez erabiltzea, eta komeni da material bat aurkeztu ondoren, material horrekin lan egitea denboraldi batez, haurrek horrekin ohitzeko aukera izan dezaten.

Artearen garapenerako beste alderdi garrantzitsu bat, lehen adin horietan, **trazuari** dagokiona da. Lehen zikloko lorpenek bigarren zikloko arteko eta plastikako jarduerara bizirako oinarria osatuko dute. Haurrak trazuak egiten ikasten du, behin eta berriz errepikatuz; elkarren gainean marrazten ditu, eta zuzenak, bereziak edo kurbatuak izan daitezke, irekiak edo itxiak. Helduak «zer da hori?» edo antzeko galderaren bat egitean soilik lotzen ditu haurrak trazuak objektu edo pertsona jakin batzuekin. Bi urtetik aurrera, mugimendu ugari egiten ditu, eta horrek trazuen ekoizpen aberatsa eragiten du. Jarduerak irauten duen artean, trazuen artean etenaldiak egiten ditu, eta, ondoren, trazu berarekin jarraitzen du. Prozesu horrek begien eta eskuen arteko koordinazioa eskatzen du, eta emaitzaren aurrerapen bat da.

Nubaris Dimentsioak garrantzi handia ematen dio plastika adierazpen orokorrari eta haurren grafomotrizitatearen garapenari, komunikatzeko eta adierazteko bitarteko ezin hobea delako. Plastikako materialak eta teknikak erabiltzeko jarduerak ageri dira, material guztiak erabiltzeko; hala ere, hizkuntza hori material espezifikokoetan erabiltzen da:

- **Plastikako laminak, Urtaroen laminak eta Jaien laminak**, plastikako zenbait teknika lantzeko eta askotariko materialak erabiltzeko egituratuak.
- **Laminen erabilera**, laminak egin aurretiko jardueretan, laminetako jarduera espezifikokoetan eta osagarrietan.
- Zirriborroak eta trazuak **grafomotrizitatea** garatzeko laminetan lantzen dira berariaz.

IrudimenArte

Margolan bat ez da gauza estatiko bat, ez da artistaren adierazpen bat soilik, baizik eta adierazpen ireki bat, ikusleak margolanaren garapenean eta haren interpretazioan jasotzen dituen sentazioen bitartez osatzen dena.

Hori adin goiztiarrean gerta dadin, sentazio horiek jasotzeko behar dituzten tresnak eskaini behar zaizkie haurrei. Baina gainera, artea —kasu honetan, arte piktorikoa— hezkuntzarako estrategia bikaina da, garapenaren dimentsio guztietan.

Bi urteko haurrak arte piktorikoa lantzen hasten dira beren garapen osoa bultzatzeko diseinatu-tako programa baten bidez, bakoitzaren bilakaeraren egoera kontuan hartuz eta errespetatuz.

Hiru artelan hautatu ditugu, unitate didaktikoetan jorratzen den ingurunearen ezaguera alorreko edukiekin alde edo moldez loturaren bat dutenak.

Lehen hiruhilekoa:

Britainia Handiko izeba, Paul Kleerena, gorputzaren eta haren ezagutzaren edukiekin lotua.

Bigarren hiruhilekoa:

Murnauko eliza, Wassily Kandinskyrena, etxearen eta ingurunearen edukiekin lotua.

Hirugarren hiruhilekoa:

Ekiloreak, Vincent van Goghena, landareen eta natura ingurunearen edukiekin lotua.

Hemen proposatutako jardueri esker, irakasleak aholkulari eta gidatzaile jardungo du, eta horretan, haurren jakin-mina, ikertu beharra eta sormena sustatuko ditu; eta batez ere, arteak emandako sentazioei dagokienez, ikasleei beren kasa parte hartzen, ikertzen eta aurkitzen lagunduko die; esate baterako, *Britainia Handiko izeba*.

Hizkuntzaren garapena

Izendatu margolan-ean ageri diren elementuak, eta seinaltatu zure gorputzean.

Garapen kognitiboa

Begiak irekita ala itxita ditu? Zer koloretakoa da kapela?

Garapen afektiboa eta soziala

Zure ustez, aurpegi polita ala itsusia da? Triste ala pozik dago?

Garapen psikomotorra

Pentsatu margolaneko emakumea zarela: Kleeek zu zer jarreratan marraztea gustatuko litzaizuke? Erreproduzitu jarrera.

Adimen bitak

Bizitzako lehen urteetan, garunak plastikotasun handia du, eta pixkanaka galtzen joaten da. Etapa horretan, haurra estimulu ugari giro batean badago, lotura ugari ezarriko dira neuronen artean.

Adimen bitak oso irudi zehatzak dira, haurrentzat batzuetan gertukoa ez den errealitatearen alderdiei buruzko informazioa ematen dutenak; hartara, ezagueraren eremuak zabaltzen dira, neuronen arteko loturak erraztu, eta **ikas-teko jakin-mina sustatzen da**.

Pedagogiaren ikuspegitik, adimen bitei esker, ikusizko eta entzunezko estimulazioa garatzeaz gain, haurren inguruko mundua ezagutzeko aukera ematen dugu.

Helburu garrantzitsu horiek lortzeko, **Nubaris Dimentsioan informazio laminen** zenbait kategoriatatik abiatzen gara, haurrentzat hurbilekoa, benetakoa eta ohikoa den ingurunearekin eta **unitateetako ardatz globalizatzaileekin** (elikadurarekin, garbiketarekin, gorputzarekin, etxearekin... lotutako objektuak) lotutako irudiak dituztenak. Ondoren, beste kategoria batzuetarantz jotzen dugu; hain zuzen ere, haurren inguruneak izan arren, egunez egun ikusteko aukerarik ez dutenak (etxeako animaliak eta animalia basatiak, landareak eta loreak, etab.). Azkenik, **kulturaren** eta **logika matematikoaren** zenbait alderditan zehar bidaia kognitibo bat egiten laguntzen duten kategoriak eskaintzen ditugu.

Gure biten programak hezkuntzaren berrikuntza eta kalitatea ditu xedetat, eta haurren bilakaeraren egoerarako eta ikaskuntzarako egokia den estimulazio programa garatzen laguntzen dio irakasleari.

Programaren helburua irakasleari ahalik eta aukera gehien ematea da, saioak ikastetxe bakoitzean oro har dauden aldagaien arabera diseinatzeko, eta ikasle talde bakoitzean bereziki daudenen arabera.

Adimen biten metodologia

- Erakutsi behar den kategoriari dagozkion adimen bitak aukeratzea.
- Landu behar den kategoria izendatzea eta laguntza afektiboa programa osoan zehar erabiltzea.
- Saioak egunean zehar tartekatzea, haurrentzat egokiak diren uneak baliatuz. Saio bakoitza jolas azkar eta dibertigarri baten moduan garatuko da, eta bakoitzean ordena batean aurkeztuko dira. Hartara, ezustekoak bere horretan jarraitzen du, eta errepikapenaren bidez, ikasitakoa finkatzea lortzen da.
- Lana banaka egiten saiatzea edo haurren kopurua murriztea aurkezpenetan, eraginkorragoa izateko.

Biten kategoriak eta zerrenda

ARDATZ GLOBALIZATZAILEEKIN LOTUTAKOAK	MATEMATIKOAK	KULTURALAK
Eskolako objektuak	Koloreak	Pintura
Gorputza	1etik 30erako zenbatekoak	Arkitektura
Etxeko gauzak	1etik 30erako zenbakien grafiak	Eskultura
Garraiobideak	Forma geometrikoak	
Zuhaitzak		
Animalia basatiak		
Hitzen laminak		

Adimen emozionala

Haurrak ikasgelara iristen direnean, esperientzia afektiboan eta harreman esperientzien protagonistak dira, eta horiek zehazten dute, hain zuzen, beren **gaitasun emozionalen eta sozialen** garapen maila. Garapen maila hori da abiapuntua kalitatezko hezkuntza osoa eskaintzen lagunduko diguten adimen emozionalekin lotutako alderdi guztiak estimulatzeko.

Laburbilduz, gizaki bakoitzak garatzen duen prozesu emozionalak zenbait etapa ditu:

- **Hiru hilabetetik aurrera**, arreta bere baitan jarrita duen senen, erreflexuen eta sentsazioen multzo bat izateari uzten dio haurrak, eta ingurunera zabaltzen da pixkanaka, fisikoki, mentalki eta emozionalki. Gizarte interakzioko eskema begiradek, irribarreek, aurpegiakiko arretak, helduaren arreta bereganatzeko soinuek... osatzen dute, pertsona garrantzitsuen maitasunezko harremanen erantzun gisa. Haurraren etorkizuneko ikaskuntza guztia etapa honetako giza harremanen eta kontaktu emozionalen mende egongo da. Kausak eta ondorioak lotzen hasten da, eta helduek horretaz jabetzen laguntzen diote, haurraren seinaleei erantzunez, esate baterako, komunikazio hori errazten dute, haurraren irribarre bati beste irribarre afektibo batekin erantzuten diotenean, edo haurraren zezelka esateak eta beso mugimenduak imitatzen dituztenean. Haurrak, jaiotzen denetik, estimuluei erantzuten dien arren, ahalmen hori bilakatuz joaten da, eta bere ekintzek gainerako erantzuna sortzen duela ohartzen denean, intenzionalitatea garatzen du.
- **Zortzi hilabeteren** bueltan, emozioen eta sentimenduen adierazpena ekintza jakin batzuekin lotzen du, eta, hartara, errazago adierazten ditu bere nahiak. Areagotu egiten dira imitazioa, ekimena, hitzen ulermena, bilakatzen ari den nortasunaren originaltasuna, mugekiko tolerantzia, ahozko hizkuntzarako ahalmena, zentzumenen eta mugimenduen koordinazioa, pertsonen arteko harremanak, etab. Horrek guztiak haurraren garapen emozionala eta soziala sustatzen ditu.
- **Bi urterekin**, nerabegarotik gaztarora igarotzeko aldaketak gogoratzen dituen etapa bat hasten da. Haurrak lorpen eta abilezia berriak bereganatzen ditu eta, horiei esker, inguruneari buruzko kontzeptuak osatzen hasten da, alderdi askori dagokionez oraindik helduen mende egon arren. Inoren laguntzarik gabe esperimendatzen du, baina atsegin du maite dituen pertsonen besoetan babesa hartzea eta haiek haurraren arazoak konpontzen saiatzea. Zalantzan dago mendekotasun eta independentzia nahien artean, etengabeko kulunka emozionalean.

Haurra emozionalki komunika dadin, **gainerako ez-hitze**ko portaeraren kontzientzia izan behar du (keinuak, gorputz hizkuntza, aurpegi adierazpenak, ahots tonua...). Hori dela eta, gure materiala emozioak interpretatzeko ahalmena estimulatzeko dago diseinatuta, irudiaren eta zeharkako formaren bidez.

Emozioak egoera afektibo subjektiboak direnez, eguneroko jarduera guztietan zehar haurren koefiziente emozionala hobetzen eta handitzen saiatu behar dugu, pertsona zoriontsuagoak izan daitezen eta bizitzan arrakasta izan dezaten.

Adimen emozionala Nubaris Dimentsioan

Nubaris Dimentsioaren ezaugarrietako bat hezkuntza emozionalari ematen zaion garrantzia da, eta hori zenbait proposamenetan eta materialetan islatzen da:

- **Adierazpen laminak**, *Adierazpen emozionalen horma irudia* egiteko, ikasgelan leku ikusgarrian jarri, eta **Adimen emozionalaren tailerrean** azaldutako proposamenak bertan egiteko.
- Irakasleari iradokitzen zaio hurrek Adimen emozionalaren tailerrean proposatutako jardueren zenbait unetan beren emozioei erreparatzeko eta behar bezala bereizteko. Ez-hitzezko seinaleen (aurpegi adierazpenak, keinuak eta jarrerak) interpretazioak ahalmen emozionalak barneratzen laguntzen du. Komunikazio emozionalaren % 90 hitzik gabe transmititzen da; irudien bidez hurrek aldarteak bereizteak mesede egiten dio gainerakoen sentimenduak ulertzeko hurren ahalmenari, eta behar bezala erreakzionatzen laguntzen die.
- **Horma irudi motibatzaileak eta ingurunekoak** nahiz **laminak** lantzean, garapen afektiboaren eta sozialaren alorrean, irakasleak emozioekin lotutako jardueri buruzko iradokizunak aurkituko ditu.
- Bestalde, irakasleak hurren jarrera eta erreakzio emozionalen ebaluazioa egingo du, lamine-tako jarduerak oinarritzat hartuta. Balorazio hori laneko laminen atzealdean itsatsi beharreko **eranskailuen** sistema bat erabiliz egin daiteke.

Ohituren garrantzia

Haurren autonomiak bere **ahalmen guztiak garatzen** laguntzen du, esperientzien bidez ikas-tea sustatzen du, autoestimua egokitua sortzea bultzatzen du, eta oreka emozionala lortzen laguntzen du.

Autonomia ohitura egokiak estimulatzea haurrak jardura mota batzuk egiteko zenbait abilezia sustatzea baino gehiago da. Jaiotzeko unean, haurrak erabateko mendekotasuneko harremana du hura zaintzen duen helduarekiko, harreman ia sinbiotikoa. Harreman hori bilakatuz joaten da pixkanaka, haurra bere buruaren irudia eraikitzen ari den heinean: bere gorputzaren irudia, aukerak eta mugak; baina baita bere sentimenduen, emozioen, beharrena eta interesena ere. Bere burua pixkanaka ezagutuz doan neurrian, haurra bere nortasuna eraikiz doa, helduengandik bereizteko prozesu baten bidez. Lorpen hori bere ingurunean autonomiaz eta ekimenez moldatzeko oinarria izango da.

Prozesu hori modu aiposean garatzea helduek haurrekin ezarritako harreman motaren mende dago erabat. Autonomia ohiturak garatzen joan dadin, inguru afektiboko pertsonak maite dutela eta haiekin seguru dagoela sentitu behar du. Zaintzen duten helduen ulermenean eta laguntzan konfiantza badu, bere buruarekiko konfiantza ere handitu egiten da eta, hala, beste lorpen handi batzuetarako oinarria finkatzen da.

Ohiturak garatzeko gomendioak

- Eguneroko jardueren errutinak ezartzea, haurrak bere ekintzetan konfiantza har dezan, maite dituen helduek gaitzetsiko ote duten ala ez jakiteak sortzen duen segurtasun eza sentitu gabe. Komeni da eguneroko jarduerak sistematikoki errepikatzea, urrats berei jarraituz, haurrari gogoratzen, aurrea hartzen eta konfiantzaz jarduten laguntzeko, badakielako ondoren zer gertatuko den, eta bere bizimoduan ordena barneratzeko.
- Ohitura bat hartzea ez da prozesu lineal eta berehalako bat eta, horregatik, oso garrantzitsua da pazientzia handia izatea eta itxaropen desegokirik ez izatea. Hasteko, haurrak egoera bat onartzea lortu behar dugu. Ondoren, haurren lankidetzak aktiboa lortu behar da, eta geroago, jardura gero eta autonomia handiagoz egiteko gai izan behar du. Uneoro, behar duen laguntza emango diogu, eta bere kabuz aritzeko gai den heinean, laguntza kenduz joango gara.
- Ohitura bat ez da modu egonkorrean eta mugagabean hartzen; haurrak aurrerapenak eta atzerapenak izaten ditu, ohitura finkatu eta automatiko bihurtzen den arte.
- Ohitura bat hartzeko, lan iraunkorra egitea eta denbora behar dira eta, horregatik, garrantzitsua da helduek jakitea normaltasunez ekin behar zaiola eta, atzerapenik gertatuz gero, ez zaiola errua haurrari leporatu behar.
- Ohiturak hartzeko prozesuan aurrerakadak izateko, ezinbestekoa da berehalako laguntza ematea, goretsiz eta keinu afektiboak eginez, haurren ahaleginak eta lorpen txikiak eskertzeko.
- Haurrak esploratu, ezagutu, ikertu, saiatu, huts egin eta berriro saiatu behar du, bere esperientziatik ikasten baitu batik bat. Ikasgela haurrari segurtasuna, konfiantza eta laguntza ematen dion ingurune afektibo bat da, bere esperientzietatik ikaskuntzak ateratzeko, baina ez da egin behar haurren ordean bere kabuz egiteko gai dena.

- Haurrak hutsen bat egiten duenean, irakasleak animatu egin behar du, berriro saia dadin, eta laguntza eman behar dio, lana behar bezala egin dezan. Ez da beharrezkoa jarduera bera zenbait aldiz errepikatuzera behartzea, haurra haserre eta zapuztuta geratuko baita.

Ohiturak Nubaris Dimentsioan

Nubaris Dimentsioan, **Une magikoak. Elkarrekin hazteko autonomia ohiturak** izeneko liburu bilduma ageri da eta, bertan, norberaren autonomiako ohitura egokiak sortzeko eta garatzeko tresnen eta estrategien berri ematen da. Dena den, ezinbestekoa da ohitura berberen garapena sustatzea familian eta eskolan, bi ikuspegi pedagogiko desberdin ez izateko, eta ohiturak hartzen laguntzen duten esperientziak osatzeko eta zabaltzeko.

Liburu horietan haurren argazkiak ageri dira, eta, liburu horiek didaktikoki lantzeko, haurrak liburu-etako protagonistekin identifikatzeko eta haien abileziak antzeratzeko estrategia iradokitzen dira.

Gainera, liburu horiekin lan egiteko baliabideak ematen dira, argazkidun berariazko jarduerak barne, honako hauetarako erabil daitezkeenak:

- Argazkiei buruz hitz egiteko, testua hitzez adierazten den aldi berean.
- Ekintzak azaltzeko, haurra egiten ari den jarduerara moldatuta.
- Irudietatik abiatuta, egoerak eta istorioak asmatzeko.
- Jarduera jakin bat noiz egin behar den iragartzeko.
- Haurraren jarrera positiboak indartze aldera erabiltzeko.

Elikadura, higiena, jantziak, ordena eta arreta blokeetan banatutako ohituren garapena sustatzea proposatzen dugu; **norberaren ongizatea eta osasuna** blokeko edukiak lantzeko, ikaslearen laminak erabiliko ditugu.

Une magikoak liburuetan, honako autonomia ohitura hauek aurkezten dira:

Elikadura	Higienea	Jantziak	Ordena eta arreta
<ul style="list-style-type: none"> • Edalontzi batetik bakarrik edatea, likidorik isuri gabe. • Jateko, behar bezala esertzea. • Haurrak bere kasa jatea, koilararekin. • Ahoa ahozapi batekin garbitzea. • Sardexka erabiltzen ikastea. • Ahoa itxita mastekatzen saiatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jan aurretik eta ondoren, eskuak garbitzea. • Eskuak lehortzea eta toalla bere tokian uztea. • Komunera joan ondoren, depositua hustea. • Komunera joateko premia adierazten ikastea. • Jan ondoren, hortzak garbitzea. • Komunera joatean, paperez garbitzen ikasten hastea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Arropa janztean eta eranztean, laguntzea. • Oinetakoak laguntzaz janztea. • Berokia janzten eta eranzten ikastea. • Kremailera igotzea eta jaisteia. • Galtzak eta azpiko arropa jaisteia eta igotzea. • Oinetakoak janztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jostailuak jasotzea. • Kanean, heldu bati eskua emanda ibiltzea. • Landareak eta animaliak zaintzea.

Proiektuan, ikasgelarako **Ohituren laminak** ere badaude, ohitura berak lantzeko eta haiek garzaten laguntzeko.

Norberaren autonomiako oinarrizko ohiturak hartzen laguntzeko, Nubaris Dimentsioak **Errutinen abestiak** eskaintzen ditu, errutinak ezartzen eta haien jarraipena egiten laguntzeko.

Autonomia ohiturak behar bezala garatzeko, ezinbestekoa da eskolan eta familian helburu berak jartzea eta haurrari mota bereko jarduerak proposatzea. Hori dela eta, Nubaris Dimentsioak sustatu nahi diren ohituren berri ematen die familiei, bai eta horiek lortzeko iradokizunak ere.

Eguraldiari behatzeko abestia

*Ea ba, ea ba,
zer daukagu gaur?
Haizea? Euria?
Edo eguzkia?*

Komunera joateko abestia

*Komunera noa
eta, amaitzean,
garbitzen naiz ongi
xaboi urarekin.*

Lotarako abestia

*Al run, run, al ron, ron,
logura heldu da.
Al run, run, al ron, ron,
begiak itxi gura.
Al run, run, al ron, ron,
abesti hau entzunda.*

Jolastokira ateratzeko abestia

*Rin, rin, rin, rin,
jolastokira, bai!
Jolasteko ordua da,
zatoz eta ikusi.*

Otorduetarako abestia

*Jatera, jatera,
goazen denok jatera.
Moldatzen naiz bakarrik
neure mahai tresnekin.
Goxoa, ederra,
goazen denok jatera.*